

Herririk Herri |3|

Bihar arte baraualdian izango dira Durangaldeko zortzi lagun

Ekonomia |10|

Durangaldeko eskola publikoko jangeletan %70ek egin dute greba



Berbaz |9|

Zigor Olabarria: "Otxandioko bonbardaketan ez da asko sakondu"



Elkarteetako eta udaletako ordezkariak gainera, Anbotoko langileak eta kolaboratzaileak elkartu ziren inaugurazioan. Ana Domínguez



Egoitza eta ilusio berriak aurkeztu ditu Anbotok

> Anbotoko bultzatzaileak lokal berriaren inaugurazioaren aitzakian elkartu ziren

> Amurizak Eraz aldizkariaren sorrera gogoratu zuen lurretako ekitaldian

15-18

•Elorrio

Heria antolatzeko planaren erakusketa martxan

4

•Durango

Turismoa bultzatzeko ekimena Turismo Bulegoan

2

•Atxondo

Kamioiendako saihebidia egitea erabaki du Udalak

7

•Iurreta

Herriguneko seinaleztapena berriztatzen dabilta

6

Jesuitak
Durango

ISO 9001:2000

Kuruziaga, 1 - DURANGO - Tel: 94 681 00 50
sanjose@jesuitak-durango.net www.jesuitak-durango.net

HERRIRIK HERRI >

▣ DURANGO

Turismo aktiboa sustatzeko asmoz eskaintza berezitu berriak sortu dituzte

Otsailean eta martxoan eskualdeaz "gozatzeko" hiru eskaintza berri ipiniko dituzte martxan

Durango jomuga turistiko gero eta erakargarriagoa bihurtzeko helburuz, Turismo Sailak herriko aberastunaz gozatzeko hiru eskaintza berezitu berri prestatu ditu eta otsailetik edo martxotik aurrera martxan egongo dira.

Otsailean gazteei eta abenturazaleei zuzendutako proposamen bi abiatuko dituzte. *Sartu zaitez lur azpian barrena* ekimenak inguruko kobazuloetan espeleologia egiteko aukera eskainiko du. Hasiberrientzako eta esperientzia dutenentzako ibilbide ezberdin bana proposatuko dute.

Arrastoari jarraituz, Durango ezagutu ekimena, berriz, gazte-

Eskaintza berezituak turistak erakartzeko proposamen egokiak direla uste du Durangoko Turismo Sailak

'Arrastoari jarraituz, Durango ezagutu' ekimenak herriko txoko esanguratsuetara bideratuko ditu gaztetxoak

txoei bideratutako ekimen ludiko-didaktikoa da. Pistak jarraituz, Durangoko hainbat txoko bisitatu dituzte gaztetxoek, harik eta azkenean misterioa argitu arte.

Martxoan hasiko den ekimenak ere misterioak ezagutzea du helburu, baina misterio mitologikoak. *Ezagutu mitologia* izenagaz, Durangoren nortasuna, kultura eta izaera beste ikuspuntu batetik ezagutzeko aukera eskaintzen duen ibilaldia antolatu dute.

Hiru eskaintza berri horiek lehendik zeudenei gehitzen zaizkie. *Egin jauzi Durangora* ekimenak asteburuetan ohikoak izaten diren irtenaldi laburrak Durangon egiteko gonbita luzatzen du; osta-

tua, gosaria, bisita gidatuak Alde Zaharretik, San Agustin Kultur Gunerako sarrerak... aurreikusiten ditu, besteak beste. Azkenik, *Zaldi munduan murgiltzea* ekimena, ekitazio zaleei zuzenduta dago.

Eskaintza guztiak euskaraz zein gazteleraz gozatzeko aukera eskaintzen dute eta gestio guztiak Turismo Bulegoak egiten ditu.

Turismoa sustatzeko eskaintza berri horiek hiru helburu nagusi bete nahi dituzte. Batetik, "turismo aktiboaren merkatuan betebetean sartu nahi dugu", adierazi du Natalia Naverán Turismo Bulego arduradunak. Horrekin batera, turistek zerbitzu berezitua eskaini nahi diete: "Gure proposame-

nak beste herri batzuetakoekin alderatzen dituztenean, gureak aukeratu ditzaten nahi dugu. Merkatuan gero eta lehiakorrago izatea dugu helburu". Azkenik, eskaintza zabala eta irekia izan dadin nahi dute: adin tarte ezberdinak hartuko dituen, urte osorako baliagarria izango dena, EAEko, atzerriko zein eskualdeko turistak erakarriko dituen...

Iaz datu positiboak

Turismo Bulegoak iaz 2008an baino jende gehiago atenditu zuen. Bisitari dagokienez, Bartzelonatik (315 lagun) eta Madrilatik (170) etorri zen jenderik gehien. Atzerriari dagokionez Frantzia, Erresuma Batua eta Alemania dira goren agertzen direnak. ■ J.D.

Turismo Sailak iaz 2008an baino eskaera gehiago atenditu zituen eta datuok "positiboki" baloratu dituzte

Usaimenagaz gozatu behar den erakusketa, Ezkurdi aretoan

La Caixak 50 bat lurrinez osatutako erakusketa antolatu du Ezkurdi, otsailaren 14ra arte



Asteko egun denetan egongo da erakusketa bisitatzeko modua.

La Caixak *Sudurra sartzen. Esentziak eta usain naturalak* izeneko erakusketa zabaldu du Ezkurdi aretoan, Durangoko Udalaren laguntzagaz. Otsailaren 14ra arte egongo da zabalik.

Ikusteko baino usaimena lantzeko den erakusketa 50 bat lurrin batu dituzte. Antolatzaileen esanetan, "erakusketa usaimenaren mundurako hurbilketa da biologiarren, kulturaren eta esperientzia zuzenaren ikuspegitik". Usaimena "desinformazioan eta ahanzturan" dagoen zentzumena dela diote eta horri buelta ematea dute helburu.

Erakusketa aste osoan zehar egongo da zabalik. Astelehenetik barikura honako hau da ordutegia: 10:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Zapatuetan eta domeketan 12:00etatik 14:00etara zabalduko dute. Eskolentzako bisita gidatuak ere antolatuko dituzte erakusketak zabalik dirauen artean. ■ J.D.

Antolatzaileen esanetan, usaimena "desinformazioan eta ahanzturan" dago eta hori aldatzea dute helburu

Hizkuntzaren hedapenaz gain, arlo berriak jorratzeko gogoeta abiatu dute euskara elkarteek

Topaguneak Durangon antolatutako jardunaldiek erantzun zabala izan dute

Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak euskara elkartearen mugimenduaren gaineko hausnarketa egiteko jardunaldiak antolatu zituen joan zen zapatuan. Jardunaldiek harrera "oso ona" izan dutela azpimarratu dute Topaguneko kideek: 100 bat lagunek eta 38 euskara elkarteek parte hartu zuten.

Jardunaldietan plazaratutako eta jasotako iritzi eta proposamenak batzeko eta lantzeko denbora behar dute, baina joera nagusiak agerian geratu ziren. Batetik, euskararen erabilera azken 25 urteetan egindako lana

Herriz herri gogoeta gai batzuk eramango ditu Topaguneak; ekitntza zehatzei ere ekingo diete laster

"ona eta beharrezkoa" izan den arren, "salto kualitatiboa" eman eta arlo berriak lantzeko beharri zana ikusi dute: "Lortu dugu euskararen erabilera bestelako erakunde askoren ardatza izatea; gure ustez sentsibilizazio eta motibazio arloan daukagu orain aurrera begirako erronka nagusiak, zer egin dezakegun formakuntzaren zein komunikazioa-

ren ikuspegitik", azaldu du Jasone Mendizabal Topaguneko zuzendariak.

Ildo horretatik, joan zen larunbatean Durangon antolatu zituzten jardunaldiak gogoeta prozesu baten abiapuntu dira.

Gogoeta horretan sakontzeko orain eskualdeka batuko dira tokian tokiko Euskara Elkarteak. Horrekin batera, ekitntza zehatzak antolatzeari ere "epe laburrean" ekingo diotela aipatu du Mendizabalek. ■ J.D.



Kike Amonarriz, eguneko ondorio nagusiak laburbiltzen.



DURANGALDEA

Bihar amaituko dute baraualdia Durangaldeko zortzi lagunek

Euskal Preso Politikoen Kolektiboak hasitako barauldiarekin bat egin zuten astelehenean



Astelehenean hasi zuten baraualdia bihar amaituko dute Durangaldeko zortzi lagunek.

Astelehenean hasi eta bihar arte Durangaldeko zortzi lagun baraualdia egiten ari dira Durangoko udaletxe parean egokitutako karpan, euskal preso politikoen eskubideen alde. Horrela, astelehenean Euskal Preso Politikoen Kolektiboak frantziar eta espainiar espetxe guztietan hasitako "baraualdiaren oihartzuna kalean zabaltzea" dute helburu.

Baraualdia hasi aurretik emandako prentsurrekoan, herri eta auzoetan egingo diren mobilizazioetan parte hartzea deitu zuten; larunbatean, 13:00etan, Durangoko Andra Maritik irtengo den

eskualdeko manifestazioan. Bat egin dute ekimenagaz Aralarrek, ezker abertzaleak, LABek, AHT Gelditu Elkarlanak, Durangaldeko gaztetxeek, Etxeratek eta Amnistiaren Aldeko Mugimenduak (AAMk). Manifestazioaren aurretik AAMk prentsurrekoa eskainiko du 2010erako plangintza jakinarazteko.

Deialdiaz gainera, "espainiar eta frantziar gobernuak abian duten errepresio estrategiaren bidez egoera muturrera" eraman izana salatu zuten. Presoak bisitatzeko joan-etorrietan egin beharreko "milaka kilometroek eragin-

Bihar, 13:00etan, Durangoko Andra Maritik irtengo den eskualdeko manifestaziora joateko deia egin zuten

Besteak beste, presoek kartzelan jasandako "eskubide urraketak" salatu zituzten

dako istripuak", kondena beteta duten presoek oraindik kartzelan jarraitzen dutela eta "kartzelan jasaten dituzten eskubide urraketak, isolamendua, lekualdatzea, jipoiak...", gogoratu zituzten.

Euskal preso politikoko batzuen egoera konkrituak ere azaldu zuten. Esaterako, Patxi Gomezi (20 urteko zigorra beteta kalean dago) Auzitegi Goreneko doktrina ezarri diotela salatu zuten, eta "beste hamar urterako espetxeratu dute". Azkenik, Durangaldeko Gatza, Zabarte, Kubati eta Gaurtxori egoera berdinean daudela gogoratu zuten. ■ J.D.

GARAI

Kultur etxeko lanen lehen zatia amaitu dute asteen

Irailaren bukaeran hasi zituzten kultur etxea izango deneko lanak, eta asteen lehen fasea amaitutzat eman dute. Gainerako lanei datozen hilabeteetan ekitea itxaroten dute udal ordezkariak.

Otea-Loran elkartearen gaineko lokaletan, ludoteka eta KZgunea egokitu gura dituzte udalak, besteren artean. Horretarako, igogailua ipini dute eraikinean, eta teilatua eta fatxada ere berrizatu dituzte. 145.000 euroko aurrekontua izan du proiektuak.

Asteen, kultur etxea izango denaren berrikuntza lanen lehen fasea amaitutzat eman dute

Aurtengo lanen artean, berogailu sistema ipintzea aipatu dute ordezkariak

Aurten, 60.950 euroko inbertsioarekin, lehenengo solairua erreformatuko dute, aurrekontu orokorrean zehaztu zuten moduan. Lanen artean, berogailu sistema ipintzea aipatu dute, esaterako, ordezkariak.

Informazio bilera

Bestalde, ortugintza eta frutagintza ekologikoaren gaineko ikastaroa egingo dute Garain, Itsasmendikoi eta Urkiola Landa Garapenerako Elkartearen eskutik.

Ikastaroaren inguruko informazioa jasotzeko bilera antolatu dute otsailaren 2an, Otea-Loran elkartean, iluntzeko 19:00etan. ■ M.O.

·Haur hezkuntza ·Lehen hezkuntza
LEARRETA-MARKINA eskola

Tel. / Faxes: 94 682 43 44
e-maila: 014097aa@hezkuntza.net
Learreta-Markina kalea z/g 48240 BERRIZ

·Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
IES BERRIZ BHI



Tel.: 94 682 49 62 Faxes: 94 682 77 26
e-maila: 015073aa@hezkuntza.net
Elizondo plaza 7.A 48240 BERRIZ

Erdu Gurekin!!

- ⇒ 2 urtetik 16 urtera
- ⇒ Ikasleen eta gurasoen partaidetza bultzatuz
- ⇒ Jantokia eta garraioa

Aurrematrikula:
Otsailaren 1etik 12ra

Berrizko euskal eskola publikoa

ELORRIO

Herria antolatzeneko planaren proposamena, erakusketan

Hiri Antolamenduko Plan Nagusiaren proposamena herrira zabalduko dute



Datozen zortzi urteetan 430 etxebizitza eraikitzea proposatu du Gobernu Taldeak.

Aurrekontuen bozketa atzeratu egin zuten

Joan zen eguenerako osoko bilkuran 2010eko aurrekontuak eztaba idatu behar zituzten, baina batzordean landutako proposamenaren eta osoko bilkuran aurkeztutakoaren artean aldaketa bat egon zela eta, EAJ eta PSE-EEko udal ordezkariak eztabaida atzeratzea eskatu zuten.

Berdintasun teknikariarentzako lanpostu finkoa jarri edo ez hainbat eztabaida izan dute Udalan. 2010eko aurrekontuetarako Gobernu Taldeak plaza hori sortzea proposatu du. EAJk eta PSE-EEK, berriz, ez zuten argi ikusten lanpostu finko horren beharra. Ogasun Batzordean eztaba idatu zituztenean, zirriborroan ez zen plaza hori aurreikusten. Niko Moreno alkateak azaldu zuenez, akats tekniko bat egon zen tarterko. Zuzenketa juridiko bat egin zuten plaza berria proposamenaren sartzeko eta EAJk eta PSE-EEK aldaketa ikustean aurrekontuen eztabaida atzeratzeko eskatu zuten.

Ondorioz, aurrekontuen eztabaida atzoko ohiko bilkurara atzeratu zuten (bozketaren emaitza: www.anboto.org-en). ■ J.D.

Pabilioi estalia egingo dute eskola publikoan

Horrez gainera, Irakasleen Etxeko bajuetan rokrodromoa egiteko asmoa ere aurrera doa

Eskola publikoan pabilioi estalia egitea, rokrodromoa eraikitzea eta jubilatuen etxeko lanak amaitzea onartu du Elorrioko Udalak. Hiru proiektu horiek Estatuak tokiko inbertsioetara bideratutako diru laguntzekin garatuko dituzte. Tokiko inbertsioak egiteko 775.000 euro ditu Udalak. Hiru proiektuak 2010ean amaitzea da asmoa.

Estatuko tokiko inbertsioetarako laguntzatik 775.000 euro egokitu zaizkie

Aurrekontu handiena duen proiektua (670.000 euro) eskola publikokoa da. Bertan pabilioi estalia eraiki gura du Udalak, saskibaloia kantxa eta futbito zelaia; eskolarako patioa izateaz gainera, herriaren eskura egongo den espazioa izango da. Adibidez, jaietan ekintzaren bat aterpean egiteko baliatu ahalko duela aurreikusi du Udalak.

Horrez gainera, rokrodromoa eraikitzekeo proiektua ere aurrera doa. Irakasleen Etxea izenez ezaguna den etxeko bajuetan egingo da, 58.000 euroko atalagaz. Herrian rokrodromoa egiteko eskari handia dago, eta Udala urtebete ibili da Erdella Mendizale Elkarteagaz berbetan.

Azkenik Aldatzekuako ateetan sarraila elektronikoak jarriko dituzte; Kultur Etxean dauden modukoak. Niko Moreno alkatearen esanetan, "Iturrin oso ondo funtzionatu du, eta bertan ere onuragarria izango da elkarteen arteko harremanak hobetzeko". Talde bakoitzak bere giltza izango duela dio. Orain, Aldatzekuan jubilatuen bi elkarteak, Elorri Lore elkarteak, alargunena eta Berriotoxa Orfeoia daude. ■ A.U./J.D.

Aldatzekuako ateetan sarraila elektronikoak ipiniko dituzte, Iturrin dauden modukoak

Zenbat etxebizitza egingo diren eta zein lekutan, industriari non kokatuko den, mugikortasuna zelan antolatu... Datozen zortzi urteetarako Hiri Antolamendurako Plan Nagusia (HAPN) diseinatu du Elorrioko Udaleko Gobernu Taldeak. Udalak proposamenaren erakusketak zabaltea adostu berri du; Kultur Etxean egongo da otsailaren 8tik martxoaren 31ra. Tarte horretan alegazioak aurkezteko aukera izango dute herritarrek.

Planean 430 etxebizitza eraikitzea aurreikusi dute, eta horietatik %70 Babes Ofizialekoak izango lirarteke

San Anton eta Pulla artean 7 hektareako industrialdea eraikiko litzateke. Lehen 25 hektarea aurreikusten ziren

Plana osatzeko, besteak beste, 2008an egin zen Denon Artean ekimenera ateratako ideiak hartu zituzte. Populazioari dagokionez, Denon Artean foroko partaideek Elorriok 8.000 biztanle inguru izatea nahi zutela adostu zuten. Horretarako 430 etxebizitza egitea proposatu du planak. Etxebizitza

horietatik % 70 Babes Ofizialekoak izatea nahi dute, eta Goietan, Montorran, Montorosten, San Antonen eta San Pion eraikiko lirarteke etxebizitza gehienak.

Industriaguneak zentralizatu Industriarako lurrei dagokionez, HAPNko proposamenaren San Anton eta Pulla artean 7 hektareako industrialdea aurreikusten da. 2007an Gobernu Taldeak atzera botatako aurreko Gobernu Taldeko EAJren proposamenaren, 25 hektareako industrialdea planifikatzen zen San Antonerako. Azalera txikiagoko industrialde berria autobigaz lotuta egongo litzatekeela azaldu du Ezker Abertzaleak, eta beraz, ez diela San Antoneko etxebizitzei kalterik eragingo.

Industria jarduerak berriak San Antonen eta Forjaseko lurretan zentralizatzeko proposamena agertzen da HAPNko zirriborroan. Industria ez sakabanatzeko, San Eloy eta Lince inguruko industria lurra desklasifikatzeko proposamena ere badago. Epe ertainean inguruotan industria gehiago ez garatzea lortu gura luke Gobernu Taldeak. ■ A.U.

Denon Artean ekimenera forotetan batutako ekarpenak hartu zituzte kontuan plan berria diseinatzeko

OTXANDIO

AEK eskolatik Andresa Landara tokialdatu dute

Lehen ludoteka zegoen gelan egokitu dute; ludoteka, berriz, beheko solairuan dago orain

Helduen euskara irakaskuntzan diharduen Otxandioko AEK-k gela berria estreinatu du. Herri eskolan irakatsi izan dute oraintsu arte eta hemendik aurrera Andresa Landa eraikineko lehen solairuan egongo dira. Hain zuzen, lehen ludoteka zegoen tokian ematen dituzte orain euskara klaseak.

AEK-ko kideek "eurendako lokal bat eskatu zuten, bestela beti materiala ipintzen eta kentzen jardun behar zutelako; egonkortasuna nahi zuten", azaldu du Ariz Otxandiano alkateak. Eta egonkortasun hori lortzeko toki aproposa iruditu zaie Andresa Landa eraikineko gela hori. Aldaketaren ondorioz ludotekak ere gela berria estreinatu du. Lehenengo solairutik beheko solairura jaitsi dute.

Ludoteka ordaindu behar Aurten lehenengoz ordaindu egin behar da ludoteka zerbitzua: "Ez da oinarrizko zerbitzu bat eta

%100 udaletxeak ordaintzea ez genuen ikusten. Hala ere, oraindik zerbitzuaren ehuneko handi bat ordaintzen dugu", argitu du Otxandiano.

Bost hilerik behin egin behar da ordainketa (bi ordainketa urtean). Herritarrek 8 euro ordainduko dute; herrian erroldatuta ez daudenek, berriz, 16 euro. Gaur egun, 25 bat gaztetxo daude ludotekan. ■ J.D.

Gela berrian eskolan falta zitzaie egonkortasuna izatea da aldaketaren helburua

Ludoteka zerbitzua ordaindu egin behar da; herrian erroldatuta daudenek 8 euro; kanpokoek, berriz, 16

goizeko 08:00etatik gabeko 21:00etara zabalik

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

{ odontologia orokorra eta espezialitateak }

muruetatorre bloqué 2 - C bajo 48200 durango tel. 94 681 99 51

Arrike
Liburudenda

Kalebarria, z/g - 48200 DURANGO
Tel.: 94 620 18 93 - Fax: 94 681 64 03

Hemen agertu gura badozu

deitu!

94 621 79 02



BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN
LLODIO ABADIÑO



Solitario zoragarria landuriko diamante distiratsuarekin

Lehen: 2.187,00 €

Orain: 113,00 €

Zuk sinesten duzu?.....Guk ere ez

Orain benetako harribitxiak aurkezten dizkizugu

BAUTISTA BEHERAPENAK

www.bautistamuebles.com

Santa Cruz poligonoa 1 zk LAUDIO (A-68aren 3 irteera) Urbitarte poligonoa 4 partzela, 2 pabiloia ABADIÑO (Eroski ondoan)

BEZEROAREN ARRETARAKO TELEFONOA: 94 672 77 00

DIURRETA

Seinaleztapena osatzen eta egokitzen hasiko dira laster

Herrigunean egingo dituzte seinaleztapena hobetzeko lehenengo lanak

Herriko hiru gunetan egingo dituzte datozen hileetan, besteak beste, zerbitzuen eta interesguneen berri ematen duten seinale berriak ezartzeko lanak. Iaz egin zuten azterketaren ondorioa dira lanok eta hiru fase-tan egingo dituzte.

Lehenengo hasiko dituztenak, iaz esleitu zituzten herriguneko eta plaza ingurukoak izango dira: 10.000 euroko aurrekontuagaz esleitu zuen abenduan Udalak lenenengo fase hori.

Iaz esleitu zituzten herriguneko lanak dira datozen asteetan hasia aurreikusituenak

Lehenengo fasean dozena bat seinale ipintzea da asmoa: Osasun zentroa eta Kultur etxea seinalatuz besteak beste

Udal Gobernuak nabarmendu duenez, laster abiatuko dituzten lan horietan, oinezkoentzako eta ibilgailuentzako guneak zehaztu eta seinalatuko dituzten erro-tuluak ipiniko dituzte.

Horrez gainera, besteak beste Osasun Zentroan, Kultur Etxean eta Aita San Migel Plazan ere seinaleak ipiniko dituzte. Guztira dozena bat seinale jarriko dituzte lehen fasean.

Baserrien izendapenak

Iñaki Totorikaguena alkateak nabarmendu duenez, "lehen begiratuan jendeak baserri bakoitza identifikatzeko" helburuagaz, lanen bigarren faseari 2010. urtean ekitea aurreikusi dute. Auzuneak seinalizatuz hasiko dira.

Herriko baserrien izenak jasoko dituzten seinaleak ipintzea ere Udalaren asmoen barruan dago. Baserriaren izena edo zenbakia, edo biak batera markatuko dituzten oraindik erabakitzeke dutela esan du Iñaki Totorikaguena alkate jeltzaleak.

Datorren urtean hasteko dute, bestalde, lanen azkenengo fasea: helburua, herriko industrialdeetan ere seinalizazioa ipintzea du onartutako egitasmoak. ■ I.E.

Datorren urtetik aurrera egingo dituzte, auzuneetako eta industriguneko seinalizazioa hobetzeko lanak

LANEN HIRU FASEAK

- Lehenengo fasean:
Herrigunea eta plaza (10.000 euro)
- Bigarren fasean:
Auzuneak (50.000 euro)
- Hirugarren fasean:
Industrialdeak



Herrigunean ipiniko dituzte lehenengo seinaleak. J.Fernandez

Palestinako Biladi Kultur Zentroari Udalaren babesa

"Herrialde ahulenezko solidaritate-konpromiso gisa, eta herri horien garapenerako" 2009an bideratutako diru-atala, Biladi Palestinako Kultur Zentroak aurkeztu duen proiektuari ematea erabaki du Iurretako Udalak aho batez.

Biladi elkarteak aurkeztutako egitasmoa, Zisjordaniako osasun-egoeragaz lotura duena, hautatu dute diruz laguntzeko. Beit Sahourko osasun zerbitzuak indartzeko helburuan inbertituko du Biladi elkarteak Udalaren 13.750 euroko diru-laguntza. Zehatzago, diagnostikoen zerbitzua eta kirurgia saila hobetzen laguntzeko asmoa du Biladi elkarteak. Ekonomia krisiaren eta Israelen okupazioaren ondorioak jasaten dituzten 1.700 herritar izango dira diru-laguntzaren onuradunak. ■ I.E.

Beit Sahourko osasun zerbitzuak indartzen laguntzera bideratuko du Biladi elkarteak 13.750 euroko diru-laguntza

Santa Mañeko tiralariak zapatuko Bakixako desafioaren irabazleak



Ikusmin handia eragin zuen joan zen zapatuan Bakixako plazan deituta zegoen desafioak, eta jende ugari bertaratu zen ikuskizunaz gozatzera. Izan ere, ez zen-eta samurra Santa Maña eta Mendatako gizon taldeen egitekoa: 700 kiloko harria zeinek luzarogoan eramango zen desafioa.

Etxekoak izan ziren lehenengoak harriari tiratzen, eta 38 unte pasatxo eginda irabazi zuten Santa Mañakoek. Oso ondo aritu ei ziren iurretarrak. Mendatakoek, bigarren tiratzearen abantaila eduki arren, ezin izan zuten aurrekoen marka hobetu.

MAÑARIA

Zaintzaileei zuzenduriko ikastaro mardula

Otsailean, martxoan eta apirilean izango dira Landa Eremuko Emakume eta Senideen Elkar-teak (Landa XXI elkarteak) antolatutako *Zaintzaile zaindu* ikastaroaren saioak. Hamazazpi saiotan, zaintzen den pertsonarekiko harremani, familientzako dauden laguntzei eta zaintzaileen eskubideei buruz jardungo dute besteak beste, ikastaroaren 50 orduetan. Izan ere, besteak "ondo zaintzeko, zaintzaileak bere burua zaintzen ikasi behar du", da ikastaroaren lema.

Familiakoren baten zaintzaren ardura duten Durangaldeko herritar guztiei dago zuzenduta ikastaroa

Gaixotasun edo menpeko-tasunen bat duten familiartekoak zaintzen dituzten, eta euren egoera zein gaixoena hobetu gura duten Durangaldeko herritar guztiei dago zuzenduta ikastaroa. Parte hartu dezaketenen kopurua mugatua da baina, eta 94-6300769 telefono zenbakia ipini dute antolatzaileek izena emateko aukeran (50 euroan izango da matrikulazioa). Orain arte Bizkaiko beste hainbat herritan egin izan da ikastaroa, eta zaintzaileek asko eskertzen ei dituzte saiook. ■ I.E.

MALLABIA

Etxez etxeko laguntzailea hautatzeko deia

Lagunduz taldeak Mallabiko Udalean Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuan lan egiteko auxiliarrak hautatzeko deia egin du. Zerbitzu horretan lan egin gura dutenen artean kontratatuko dute laguntzaile hori. Deialdiko oinarrien arabera, hautagai izan gura duenak klinika auxiliarra, geriatria auxiliarra edo EELZ auxiliarra izan behar du, edo gizarte osasunean zelanbaiteko prestakuntza izan.

Pertsonen zainketan esperientzia izatea ere eskatzen dute, eta baita Mallabikoa izatea ere. Beste eskakizunetako batzuk euskaraz jakitea eta gidatzeko baimena eta autoa izatea dira.

Interesa duenak helbide honetara bidali beharko du curriculum: Lagunduz taldea, Villa de Plentzia kalea, 2 behea. 48930 Getxo.

Lagunduz taldeak Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzu Publiko eskaintzen du hainbat udalendako, tartean Mallabiaren dako. Euren webgunean, www.lagunduz.com-en ere bete daiteke curriculum. ■ P.M.

Klinika auxiliarra izatea eta arlo honetan esperientzia izatea eskatzen dute deialdiko oinarrietan

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tf./Faxa: 94 622 57 74 - 48240 BERRIZ Mug: 658 75 72 79



ATXONDO

Saihesbidea egitea onartu dute, eztabaidekin

Gaztetxearen eta paper-fabrikaren artean hasiko da behin-behineko bidea



Herrigunetik pasatzen diren kamioiengatik hainbat kexa egon dira Atxondon. K.Aginako

Herrigunetik trafikoa kentzeko behin-behineko saihesbidea egitea onartu du Atxondoko Udalak. Gaztetxearen eta paper-fabrikaren artean joango litzateke bidea Fuchosaraino. Proiektuak 157.000 euroko kostua du eta Espainiako Gobernuak tokiko inbertsioetarako emandako laguntzekin garatuko da. Ikamiken ostean, EAJren abstentzioagaz onartu zen proiektua osoko bilkuran.

David Cobos alkateak azaldu duenez, aspalditik dago saihesbidearen beharra: "Egunero 300-400 kotxe eta 60 bat kamioi pasatzen dira erdigunetik, eta zarata asko egoten da. Gainera, kale estua

David Cobos: "Egunero 60 kamioi eta 300-400 kotxe pasatzen dira erdigunetik, eta arriskutsua da"

M. Angel Buruaga: "Udalak ez du zertan dirua gastatu kalteak eragiten dituen enpresa bati laguntzeko"

zeharkatzen dute, eta arriskutsua da". Bidea behin-behinekoa izango da, urte batzuk barru bide finko bat egingo delako. Horretarako Arau Subsidiarioak aldatu behar dira. Cobosen ustez, "denbora eta dirua beharko da, eta egoera ekonomikoa ikusita, asko luzatuko da kontua".

EAJko bozeramaile Migel Angel Buruagaren iritziz, "Udalak ez du zertan dirua gastatu kalteak eragiten dituen enpresa bati laguntzeko". Buruagak esan du Gobernu Taldeak arinago EAJk landutako alternatibari ez diola heldu eta trafikoarena "aspaldi konponduta egon beharko litzatekeen arazoa" dela. ■ A.U.

ZALDIBAR

Udalak Gazagan lur saila erosteko asmoa

Gazagako ur-biltegi berrirako behar den ponpaketa-etxola egiteko 71,82 metro koadroko lurra erosteko asmoa du Udalak. Lur sail hori erosteko 300 euro inguruko diru atala bideratuko dute. Herriko ur tratatua Gazaga auzoko baserrietara heltzeko ur-biltegi berria eta ur kanalizazioak hobetu dituzte, baina herriko ur hori Gazagan egindako deposito berrira igotzeko ponpaketa-etxola behar da, eta Urkitxe baserriaren ondoan kokatuko dute. Gazagako auzokideei orain arte, auzoan zuten iturburu batetik heltzen zitzairen ura eta ez herriko ur tratatua, baina hori konponduko dute lan hauek burutzen dituztenean. ■ G.A.

AHTren planoak publikoak direla esan du Udalak

"Udalean AHTri buruz dagoen informazio guztia publikoa da eta herritar guztien eskura dago". Horrela erantzun dio Atxondoko Udalak Espainiako hainbat hedabidek publikatutako albisteari. Izan ere, hedabide horiek Atxondoko eta Elorrioko udalek Segiri AHTren planoak agetzen diren dokumentuak eman zizkiela publikatu zuten duela hiru aste.

Atxondoko udalak herritarrei dokumentazioa ezkutatzeko asmorik ez duela, eta argitaratutako berri horren "helburu bakarra kriminalizazioa" dela azpimarratu du Udalak.

Bestalde, Urkitze inguruan zundaketak eginen hasi direla jakinarazi du Udalak. ■ A.U.

BERRIZ

Lanpostu publikorako azterketak egin dituzte

448 oposatzaile bildu ziren Berrizko frontoian azterketa teorikoak egin ahal izateko

Berrizko udalak egin duen Lan Eskaintza publikorako deialdira jende asko aurkeztu zen. Guztira 448 pertsona izan ziren Berrizko frontoian azterketa teorikoak egin eta postu bakoitzera aurkeztu ziren erdiek gutxienez gainditzea lortu zuten.

Azterketen emaitzak publikatu eta 10 eguneko epea dago erreklamazioak jartzeko.

Oraindik prozesu luzea falta da lanpostuak nork lortuko dituen jakiteko, baina momentuz lehenengo pausoa eginda dago. Bigarrena, azterketa praktikoa egitea, otsailan izango da eta hainbat egunetan egingo dituzte, izan ere,

jende asko aurkeztu da azterketa eta denok batera ez egiteko.

Hala ere, lanpostu baterako azterketa egitea falta da; gizon eta emakumeen arteko berdintasun, lan eta gazteri teknikari posturako. Lan eskaintza publikoa 11 lanpostu betetzeko da; behargin bana behar dute administrazio laguntzaile, peoi eta begirale - sorosle postuetarako. Eginkizun askotako lanak egiteko bi lanpostu daude, batek lehen mailako hizkuntza eskakizuna duena eta besteak bigarren mailakoa. Lan eta gazteria teknikari bat ere behar da, eta garbiketa lanetan ibiltzeko bost langile. ■ G.A.

IURRETAKO HEZKUNTZA EREMUA

Olaburu auzunea IURRETA



2-12

MAIZTEGI
HH eta LH



12-18

OROBIOGOITIA
DBH eta Batxilergoa

Matrikula Epea:
Otsailaren 1etik 12ra

- Gune egokia
- Jantokia eta garraioa
- Irakasle euskaldunak, finkoak eta esperientziadunak
- Zuen seme-alabek euskaraz egin ditzakete unibertsitate aurreko ikasketa guztiak Iurretan

94 681 09 37 MAIZTEGI
94 681 04 61 OROBIOGOITIA

ABADIÑO

Udalari Euskararen ordenantza "sistematikoki haustea" egotziz

Euskararen ordenantza "berehala aplikatzea" exijitu du Ezker Abertzaleak



Udaleko dokumentazio guztia elebiduna izan behar dela gogorarazi zuten.

Joan zen martitzeneko osoko bilkuran galdera eta eskariei eskainitako tartean salatu zuten Aritz Basauri Ezker Abertzaleko zinegotziak, euskarari dagokionez "Udalak berak 2000. urtean sortutako arauak bete barik" jarraitzen duela Udal Gobernuak, "nahiz eta azken bi urteetan behin eta berri eskatu izan dugun".

Orain hamarkada bat Udalean onartutako Euskararen Ordenantza "armairutik atera eta berehala aplikatzea exijitu" zion Ezker Abertzaleak Gobernuari. Ordenantza Udalak berak ere "sistematikoki" hausten duela erakutsi asmoz adibideak ipini zituen Ezker

Abertzaleko Basauri bozeramaileak: besteak beste, "Udaleko telefonoko erantzungailu automatikoak gazteleraz bakarrik erantzuten duela, eskaera orri batzuk

"Udaleko telefonoko entzungailuak gazteleraz bakarrik erantzuten du"

2000. urtean onartutako Ordenantza "sistematikoki" hausten duela Udalak berak, azpimarratu zuen Basaurik

gazteleraz bakarrik eskuratu daitezkeela, eta Matienan oraintsu berriztatu duten errepideko errotulazioa gazteleraz hutsean dagoela", nabarmendu zuen. Orain hamar urte Udalean zeuden EAJ eta Talde Independienteak onartutako euskararen araudian esaten dena gogorarazi zuen Basaurik: orokorrean, Udaleko informazioa euskaraz eta gazteleraz idaztea, eta erdaldunentzako ulergarri izan daitekeen kasuetan euskara lehenestea agintzen du ordenantzak. Ezker Abertzaleak mahai-gaineratutako gaiari buruz ez zuten iritzirik eman ez jeltzaleek ezta independenteek ere.

IZURTZA

Arau subsidiarioetan egin gura duten aldaketari buruz

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza sailean batzarra izan zuten eguaztenean Udalaren hiru ordezkariak

Udal arkitektoa eta Arau Subsidiarioen aldaketa jasotzen duen txostena idazten diharduten arkitektoa eta abokatua izan ziren atzo Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza saileko batzarrean. Hitzorduaren helburua herriko Arau Subsidiarioetan nekazaritza-lur izendape-

Eguazteneko Etxebizitza saileko batzarra "nahiko positiboa" izan zela nabarmendu du Gobernuak

na duen lursaila etxebizitza sozialak eraikitzea bideratu ahal izateko Udalak hasi duen arauen aldaketa puntualerako tramitazioaren berri ematea izan zuten. Eusko Jaurlaritzari Udalak hasi duen prozesuaren berri eman zioten urtarrilaren 27ko batzarrean, Gobernuak dioenez, prozesua aurreratuago dagoenean eragozpenak sortzea ekiditeko. Batzarra "nahiko positiboa" izan zela azaldu dute. Arau Subsidiarioen aldaketa puntualaren inguruko txosten juridiko eta teknikoak eta ingurumenaren gaineko eraginaren lan-tzen dihardute bitartean. ■ I.E.

ATXONDO

Astelehen arratsaldean zabalduko dute liburutegi berria

Udal liburutegi berria zabalduko dute Apatan datorren astelehenean. Leku aldaketa dela eta, barikuan eta astelehen goizean liburutegi zaharra itxita egongo dela jakinarazi dute. Egun horiek materiala toki batetik bestera eramateko baliatuko dituzte. Astelehen arratsaldean zabalduko dute liburutegi berria, Gaztetxe lehen pisuan. Liburutegi zaharra Udaletxe beheko solairuan egon da orain arte. Orain, Gaztetxean egokitu duten gelan leku handiagoa dago eta, horrek, besteak beste, liburuen sailkapena egitea errazten du.

DURANGO

Bateginez, proiektua sendotuz

Bateginez Gobernu Kanpoko Erakundeak azkenaldian jasotako diru-laguntzak San Miguel Pochutan duen Besohartze proiektuko elikagaien poltsak osatzeko erabiliko ditu. Horrela, proiektuaren jomuga diren 211 umeren familiek elikagai gehiago jasoko dituzte, 2009an Guatemalan izandako goseteari aurre egiteko. "Dirua proiektuaren kudeaketa gastuak ordaintzeko erabiliko dugu. Ondorioz, aitabitxi eta amabitxiak kutekin lehengai gehiago banatu ahal izango ditugu", azaldu dute Bateginezko kideek. Besohartze programa 1994an sortu zuten. Gaur egun, osasun eta hezkuntza laguntza eskaintzen diete San Miguel Pochutako Lehen Hezkuntzako gaztetxoei.

Atzeritartasun legeari buruzko informazio saioak

Durango atzeritartasunaren gaineko legeari buruzko informazioa emateko taldekako saioak garatzen hasi da Behargintza. Saioen bidez, legearen edukia azaltzeaz gainera, atzerriko biztanleen gizarteratze-prozesuan duen eragin praktikoa ere argituko dute. Urtea amaitu bitartean bost saio egingo dituzte Behargintzan: otsailaren 25ean, apirilaren 29an, ekainaren 24an, irailaren 30ean eta azaroaren 25ean (19:00etatik 21:00etara izango dira).

Informazio saio horiek Ermuan ere egingo dituzte hileko azken eguenean Lobiano Kultur Gunean.

DURANGALDEA

Egunkariaren auzia salatu dute



Eguaztenean Euskal Herri mailan mobilizazio eguna egin zuten Euskal Herrian Euskarazeko kideek, Euskal Herriko hainbat herritan. Durangaldean ere egin zituzten kontzentrazioak: Durango eta Zornotzan, hain zuzen. Mobilizazio eguna "Egunkariaren kontrako erasoaren erantzuleak salatuz" izan zela azaldu dute Euskal Herrian Euskarazeko kideek.

Durango egindako kontzentrazioa eguaztenean arratsaldean egin zuten eta 40 bat lagun bildu ziren; esku-orri informatiboak ere banatu zituzten.

ALBERDI
HARATEGIA HARATEGIA
DURANGO

Bertako okela Aurretiaz prestatutako janariak
Askatasun etorbidea, 1
Tf: 94 681 76 58
48200 DURANGO

ODOLOSTETAN GAILLEN - 2009
Entusiasmo en la elaboración de Merillos.
Alberdi Harategia

ALBERDI
preziosinak

“Garrantzitsuena Otxandioko historia otxandiarrek eurek dakitenarekin osatzea da”

Udalak emandako bekagaz Otxandioko gerra denborako informazioa batzen dabil Zigor Olabarria historialaria

Datorren urtean 75 urte bete-ko dira Otxandioko bonbardaketatik. Artxiboetan, 1936 inguruko prentsan, udaletxeko aktetan... hamaika lekutan ibili da Zigor Olabarria historialaria garai horretako informazioa biltzen. Otxandioko memoria historikoaren inguruko ikerketa lana egiten ari da Olabarria. Orain arte dokumentazio lana egin badu ere, historialariaren ustez, garrantzitsuena otxandiarren testigantzak jasotzea izango da, eurek kontatu behar dutelako euren herriaren historia. 18 hilabete-ko beka da esku artean duena; 2011rako liburua eta DVDa kalera-tuko dituzte berak egindako lanarekin.

Otxandioko bonbardaketaren inguruko gertakariak ikertzen hasizara. Orain arte gutxi landu den gaia da?

Nik ezagutzen dudanez behintzat, bonbardaketa Gerra Zibilaren inguruko lanetan aipatu egiten da, baina landu gehiegi ez. Gehien landu duena Jon Irazabal izan da. Berak liburu bat atera zuen Otxandioko Udalarekin duela hiruzpalau urte, eta bertan Otxandioko Gerra Zibila lantzen zen, eta bonbardaketa bereziki aipatzen zen; hildakoen zerrenda bat zegoen, eta hori da gehien landu dena. Baina berak ere aipatu zuen lan hori aitzakia zela nolabait, norbaitek gaia hartzeko eta gehiago sakontzeko.

Nondik abiatu zara zure ikerlanean?

Orain arte idatzita dagoena jasotzen ibili naiz, dagoen informazioa biltzen eta sailkatzen. Artxiboetan ere ibili naiz, gertukoetan, Bilbokoan, Bizkaikoan... eta baita urrutikoetan ere. Garai hartako prentsa ere irakurri dut, bonbardaketari buruz zer ageri den jakiteko, eta oso iturri garrantzitsuak izan dira Udaleko udalbatzarren aktak, egunerokotasunean herrian zer gertatzen zen jakiteko... Avilako artxibo militarra eta Salamancako artxibora ere joan naiz. Guztia jaso eta sailkatzen ari naiz orain.

Urrutira joan zara orduan...

Bai. Avilara halabeharrez joan behar izan nuen. Han dago garai hartako artxibo militarra, eta Gerra Zibilaren inguruko informazio ugari dago. Orain arte gai honetan ez naiz gehiegi ibili, eta gauza kuriosoak topatu ditut. Operazioen inguruko militarren informeak daude bertan, eta Otxandion tropa nazionalak



“Gerra Zibileko lanetan bonbardaketa aipatzen da, baina orain arte ez da sakondu”

nondik ibili ziren, eta horrelakoak topatu ditut.

Herritarren testigantzak ere batuko dituzu. Gero eta jende gutxiago egongo da gertaera hura bizi izan zuena...

Bai, eta horregatik sortu zen beka hein handi batean. Alde batetik, 2011n bonbardaketaren 75. urteurrena izango delako, eta beste alde batetik, lan hau noizbait egin nahi bazen, testigantzak jasotzeko zentzua eta lehenago egin hobeto delako. Gauza bat da gainera, garai hartan bizirik egotea, baina beste gauza

“Garrantzitsuena da etxeetan egon daitezkeen argazki eta dokumentuak batzea”

bat garai hartako oroitzapenak izateko moduko adina izatea. Orduan, gutxi daude, eta gainera, ordukoak kontatzeko moduan gutxiago. Garai hura bizi izan zutenen eta etxean garai horien kontuak entzun zituztenen esanak batu gura ditut.

Herritarrek eduki dezaketen informazioa, argazkiak... garrantzitsuak izango dira. Niretzako laneko garrantzitsuena hori da. Ni ez naiz Otxandion bizi, familia eta lagunak baditut, baina ez naiz bertan bizi. Niretzako garrantzitsuena Otxandioko herriaren his-

Zigor Olabarria

- Historian lizentziaduna da.
- Otxandioko memoria historikoaren inguruko ikerketa lana egiten ari da.

toria otxandiarrek eurek dakitenarekin osatzea da. Garai hura bizi izan zutenak eta eurek kontatutakoa entzun dutenak elkarriketatuko ditut, baina gero, garrantzitsuena da baita ere, etxeetan egon daitezkeen argazkiak eta dokumentuak batzea. Testigantzez gain, gerrako gutunek, adibidez, askotan informazio asko ematen dute. Jendeak gordeta dituen gauzak biltzen saiatuko gara.

Zergatik esango zenuke dela garrantzitsuena memoria historikoa berreskuratzea?

Historia ikertu eta museo baten gordetzen badugu, historia horrek niretzako ez du interes handiegirik. Niretzako historia garrantzitsuena da gaur egunean zer garen eta nondik gatozen ezagutzeko, eta aurrera begira zer izan nahi dugun ikusteko. Bai pertsona modura, eta bai kolektibo modura ere. Zentzu horretan oso hunkigarriak iruditu zitzaizkidan Maialen Lujanbiok Bertsolari Txapelketako finalean kantatutako bertso batzuk. Gaian, fusilatuta lurperatu zituzten batzuk agertzen ziren, eta halako batean bertsoan bota zuen, gorpu haietan zeuden berun haziek azaltzen dituztela gaur egungo sasiak. Orainaren eta iraganaren arteko lotura hori planteatu beharreko zerbait da aurrera begira jotzeko orduan. ■ A.U.

“Historia garrantzitsuena da etorkizunean zer izan nahi dugun ikusteko”

EKONOMIA[>]

> DURANGALDEA

Eskualdean %70ek egin dute greba jantokietan

Eskola publikoko jangeletako grebak 2.100 pertsonari eragin dio eskualdean



Eskola publikoetako jangeletan greba egin dute astearte eta ostegunean. K.Aginako

Durangaldean eskola publikoko jangeletan egin duten grebak %70eko jarraipena izan du ostegunean eta 2.100 pertsonari eragin die. Astearteko

lanuztearekin alderatuta jarraipena handiagoa izan da, LABeko ordezkariaren datuen arabera. Iurretan, Zaldibarren eta Elorrioren jarraipena %100ekoa izan da.

Sindikatuak ez dute greba mugagabea baztertzeko akordiorik lortzen ez bada

Durango Zabalarra herri eskolan %100eko jarraipena izan du, Landakon aldiz, %40. Matiena eta Abadiñon grebak ez du jarraipen handirik izan. Aste honetako bi lanuzteekin urtebetean bederatzi aldiz egin dute greba.

Proteston bidez langileek eskatzen dute hitzarmen kolektiboaren negoziatzea eta lan baldintzak gainerako langileekin berdintzea, monitore bakoitzaren zaintzapean dauden umekopuruak baxatzea, formazioa zehatza izatea eta gutxienez egunero ordu biko kontratazioa.

Eskola publikoko jangeletako langileek aste honetan bi aldiz egin dute lanuztea, guztira urtebetean bederatzi aldiz

Jauralaritzak ezarritako gutxieneko zerbitzuak "gehiegizkoak" direla adierazi dute, izan ere, sindikatuak uste dute "sektore honetan ez dutela justifikaziorik". Bi eta hiru urteko haurren begiraleen %80k eta jangelako langileen %10ek joan behar izan dute lanera gutxieneko zerbitzuak betetzeko. Sindikatuak ez dute greba mugagabea baztertzeko. ■ G.A.

■ kolaborazioa



Mauricio García
UGT sindikatua

Langileek erabaki

Urte bi daramatzagu finantza sistemak sortutako krisian murgilduta, eta halaxe hasi dugu 2010a ere (EREak, kalera-tzeak, soldatak ordaindu barik). Hala ere lanean eta hitzarmen kolektiboak negoziatzen jarraitu behar dugu.

Euskadin sektorekako 101 hitzarmen eta enpresetako 444 negoziatu behar ditugu.

UGTk beti egin du adostasun eta negoziazio kolektiboaren alde maila sektorialean, langileak babestuko dituen aterpe bakarra dela badakigu eta. Ezin ditugu enpresa txiki eta ertainetako langileak babes barik utzi.

Sindikatu batek, baina, gurago du hitzarmenak enpresara egin, langile guztiak kontuan hartu barik. Horrela, enpresa txikietan dauden beharginak bakarrik uzten dituzte. Eskualdean, enpresa askotan 50 langile baino gutxiago daude eta ez daukate ordezkariak. Zelan negoziatu hitzarmena halakoetan?

Sindikatuaren ordezkaritza funtsezkoa da negoziazio kolektiboan, eta beharginak erabaki behar dute zelan egin: enpresara negoziatu, eta langile asko hitzarmen barik utzi, ala kolektiboki egin, eta behargin guztiak sektorekako hitzarmenen bidez babestu. Hori guztia hauteskunde sindikaletan erabakitzen da.

Gainera, esandako sindikatuak, Bizkaiko metalarren hitzarmena sinatu ez arren, hitzarmena enpresa txiki batean aplikatzea nahi izan du. Enpresariak ez du onartu eta epaitegiek esan dute, "sindikatu horrek ez duenez hitzarmena sinatu, enpresak ez daukala zertan langileei eta sindikatu horretako afiliatuei aplikatu". Hori dela eta, langileak hitzarmen barik geratu dira.

ADEGik sektorekako 10 hitzarmen birrindu ditu. Sektore horietako ordezkari gehienak sindikatu batekoak dira, baina sindikatuak ez duenez sektorekako hitzarmenik nahi, sektore horietako langileak hitzarmen barik geratu dira. Ondorioz, langileei Lanbide arteko Gutxieneko Soldata aplikatuko diete agian, hitzarmenik ez dutelako.

Erredakzioan itzulia

> ZORNOTZA

AICk eta Iberdrolak ibilgailu elektrikoa sustatuko dute Bizkaian

Akordioa sinatu dute J. Luis Bilbaok, AICko lehendakari bezala, eta Sánchez Galán Iberdrolakoak

Erakunde bien arteko Lankidetzaren Hitzarmenerako Akordio Esparrua sinatu dute. Helburua ibilgailu elektrikoa Bizkaian garatzea eta bultzatzea da. AICn apustua da ibilgailu elektrikoa ahalik eta arinen eta modu errazenean ezartzeko behar diren sareak eta azpiegiturak sustatzea. José Luis Bilbaok

azpimarratu du akordio honek eragin positiboa izango duela ibilgailuen industrian, eraginkortasun energetikoa duelako, ingurumenaren kalitatea hobetzen duelako eta industriaren garapen ekonomikoa bultzatzen duelako. Iberdrolak, ibilgailu elektrikoaren aldeko apustu irmoa egin du. ■ G.A.



Kotxe elektrikoak bultzada handia izango du Bizkaian



Llanesen (Asturias) asteburu bateko egonaldiko zozketako irabazlea:

Leire Telletxe (Zaldibar)

Durangoko Eroskiko bulegoan jaso zuen saria. Zorionak eta ondo pasatu!



KULTURA[>]



ANTZERKIA > EMANALDIA

Zahartzaroari buruzko 'Aitarekin bidaian'

Zahartzaroaren gaia lantzen duen antzezlan, *Aitarekin bidaian* izena daramana dugu ikusgai gaur 22:00etan hasita Elorrioko Arriolan. Hika Teatroa taldearen azken ekoizpena da. Iazko urrian Durangoko San Agustinen estreinatu zuten, eta geroago Zornotza Aretoan ere eskaini dute.

Arantxa Iturbe eta Agurtzane Intxaurregak idatzitako testuetan oinarritutako lana dakarkigu oraingoan 1990ean sortutako Hika Teatroa taldeak. Bizi-itxaropena hainbeste luzatu den garaiotan familia askok etxeko zahar eta gai-xoak zaintzeko izaten dituzten zailtasunak hartu dituzte antzezan hau sortzeko oinarri eta inspirazio-iturri legez.

Obraren pasarte batean esaten denez, "...ahazten hasten zara. Lehendabizi, gauzak: non sartu ditut giltzak? Geroxeago hitzorduetak: ze egunetan itzultzeko agindu zidan medikuak? Eta apuntatzen ikasten duzu... apuntatutakoa begiratzea ahazten duzun arte.../... Ahazten zaizkizu pastilak, antiojuak, izenak, urtebetezueak, aurpegiak, bideak...". Memoria galera dakarren zahartzaroko gaixotasunak jota dago antzezlaneko Patxi protagonistaren aita.

Jose Ramon Soroz eta Joseba Apaolaza antzezle, eta Jabier Muguruza musikari eta antzeze lanetan aritzen dira *Aitarekin Bidaian* lanean, ikusleei momentu hunkigarriak, baina baita barrengarriak ere bizi araziz. ■ I.E.

12 '16 lore' Plateruenean, bihar

Bihar gauean, urtarrilaren 30ean aurkeztuko du bere ibilbideko kanta ezagunen bilduma den '16 lore' diskoa Durangoko Plateruenean Gari musikariak.



13

Arkitektura berbagai aurten

Durangoko Arte eta Historia Museoan dira otsailaren 4an hasita, eta hiru egunetan (18 eta 25ean), Artea Ezagupide hitzaldi zikloaren aurtengo hitzorduetak.

MUSIKA > EMANALDIA

Gariren '16 lore' Plateruenean: amapolak eta aitormenak

Bihar, urtarrilaren 30ean izango da Gariren Platerueneko kontzertua

Orain urtebete, Afrikako Kongora egin zuen bidaia abiatu aurretik grabatuta utzi zituen kantak Platerueneko kontzertura gerturatzeko diren entzuleei zuzenean eskainiko dizkie Garik 22:00etan, gaur. *Zu gabe, Amapola, Esperantzara kondentua, Hil ez denak, Aitormena,*

Taldean zein bakar-kako ibilbidean sortutako kantekin

Batzutan, eta Ez da ezer ez kanten bertsio berriak eskainiko ditu besteren artean legazpiarrak Durangon. Bizi guztian, Hertzainak taldean zein bakarkako ibilbidean sortutako kanten bilduma aurkeztuko du. Urteetako esperientzia lagun, iraganera, atzera begiratuta, eta kantak modu "intuitiboan" hautatu eta sortuz, egin ditu kantariak '16 lore' diskoan bildutako abestiak, azaldu duenez.

Fran Iturbe edo Karlos Aranzegi musikariekin zein Gose hirukoarekin edo Gasteizko Artiumeko saioan Patty Smith-ekin grabatuta utzi zituenak, zuzenean laguntzen duten musikariekin joko ditu gaur: Miguel Moyano, Fran Iturbe, Karlos Aranzegi eta Mikel Azpiroz baitira Gari laguntzen duten musikariak. ■ I.E.

Afrikara bidaia abiatu aurretik grabatuta utzi zuen '16 lore' diskoa

Bere ibilbide osoari begiratuta Garik hautatutako kantekin



ERAKUSKETA > ARGAZKIAK

Maite Gorrotxategi berriztar argazkilariaren 'urtaroak'

Otsailaren 14ra arte dago Gorrotxategiren lana Kultur Etxean bisitagai

Erakusketaren erdian kokaturiko mahaiaren gainean jarrita duen idatzian egileak esaten duenez, artifizioaren eta naturalaren borrokatik sortutako lana da otsailera arte Berrizko Kultur Etxean ikusgai duguna. 'Urtaroak' izena

jarri dio Maite Gorrotxategi erakusketari, eta inguratzen gaituzten paisaiak bildu ditu bertan. Pagadi baten hezetasuna, hosto multzo batena, zein eguzkilore baten plano hurbilenekoena bildu ditu besteak beste erakuske-

tarako. Egileak berak azaltzen duenez, ahalik eta artifizio gutxienekin, eta oraindik orain makinaren esku ez dagoen hori landuz egin ditu argazkiak: berezi iruditu zaion argia edo unea hautatu eta argazkian gordez. ■ I.E.



Formatu txikiko koadroetan daude Gorrotxategiren argazkiak ikusgai.

GEURE DURANGALDEA



Fernan Ruiz
Berbaroko kidea

Teilatu gorenetik

Gogoan dut Felice desagertu zenekoa. Munduari teilatuetatik begiratzea zuen gustuko. Esaten zidan, handik goitik, beste modu batera ikusten dela guztia, perspektiba bestelakoa dela, formak, bizidunen joan etorriak... Abiadaren pertzepzioa ere beste bat da. Teilatu gorenean jartzen zen, handik besteen gorri garbiak eta zakarrak ikusi daitezkeelako, metalezko makila eta parrillak tente... Esaten zuen, neguan, tximinia zaharretako ke-jarioa lainoekin nahaspilatzen ikusteak itxaropena sortzen ziola; handik goitik ikusita, geometria hobeto ulertzen dela...

Gure artean mundu paraleloak badirela esaten zuen, uztartzera egundo iritsiko ez direnak. Eta forma geometriko hori nabariagoa dela handik goitik behatuta.

Joan den zapatuan euskara elkarteek etorkizuneko erronkei buruzko jardunaldiak egin zituzten Durangon. Mundu paraleloak agertu ziren han ere bai, eta armak hartzeko deia entzun dut. Euskaldunok, oro har, armatuta eta desarmatuta omen gaude. Armatuta, baliabideak eta azpiegiturak lortu ditugulako, kalitatezko proiektu, ekintza eta produktuak sortu ditugulako, neurri batean, beste mundu paralelo horiengana hurreratu guran. Ideologikoki ordea, desarmatuta gaude. Euskara badakigun eta (gutxi) erabiltzen dugun arren, ez gara euskaldunak. Sentimenduak bakarrik ez du balio, aldeko jarrera soilak ere ez, estetika hutsa ustela da... Euskal hiztun kontzientek eta kontzientzia eragileak izan behar dugu, euskararen, euskal kulturaren eta identitatearen transmisoreak izan behar dugu. Hau da, euskaldun perfektuak. Euskara elkartearen eginkizuna omen da horrelako prototipoak fabrikatzea.

Teilatu gorenera igo nahi dut eta Feliceren alboan jarri, handik goitik erakutsi diezadan gure unibertso txiki bezain konplikatua geometria hobeto ulertzen.

ANTZERKIA > ESTREINALDIA

Markeliñeren 'Uharte ezezaguna' lan berria euskaraz lehenengoz

Bihar, urtarrilaren 30ean, aurkeztuko dute antzezlanaren 18:00etan Zornotza Aretoan

Jose Saramago idazle portugaldarraren *O conto da ilha desconhecida* ipuinean oinarrituta, Markeliñe antzerki taldeak sortutako 'Uharte Ezezaguna' antzezlanaren euskarazko bertsioa bihar, urtarrilaren 30ean, eskainiko dute lehenengoz, 18:00etan Zornotza Aretoan.

ko eskubide ukaezinaz eta etorkizuna moldatzeko dugun gaitasunaz dihardu antzezlanak.

Emakume batek Erreginari Uharte Ezezaguna aurkitzeko itsasontzi bat eskatzen dionean hasten da istorioa, baina erreginak irla guztiak mapetan daudela erantzun dio... ■ I.E.

Amets egitearen defentsa egiten duen antzezlanaren

Urtarril hasieran Zornotzako antzoki berean aurkeztu zuen Markeliñek antzezlanaren gaztelarazko bertsioa, familia osoari zuzendutako lana. Saramagoren ipuinaren jatorrizko testu poetikoaren mezu filosofikoa garatzen du 'Uharte Ezezaguna' lanean Markeliñek: amets egite-



ARKITEKTURA > HITZALDIAK

Arkitektura, gaurko gizartean eztabaida sutsuak eragiten dituena, eta askoren ahotan ibiltzen den zientzia hautatu dute 2010eko Artearen Ezaupidea hitzaldi zikloaren zazpigarren edizioan gai nagusitzat.

Gure inguru hurbilenean, udalerrietako hirigintza diseinatzeko, zein munduko edozein herrialdetako bizi-kalitatea neurtzeko osagai inportantea bilakatu dena ezagutu eta sakontzeko helburua dute aurtengo Artearen Ezaupidea zikloan.

Berbaldien aurtengo ekinaldiak aurkeztu dizkigun Aurrekoetxearen ahotan, "XXI. mendean, modernitatean, pisu izugarria daukan" gaia da otsaileko hiru eguenetan Museoan landuko dutena.

“Modernitatean pisu izugarria duen gaia” hautatu dute aurtengo arkitektura

Hiru hizlari, hiru aditu izango dira otsailaren 4, 18 eta 25ean Durangon: lehenengo saioan, EHUko Fernando Bajo irakasleak, *Le Corbusier: el laboratorio de alquimista* goiburua daraman hitzaldia eskainiko du. Orain zazpi urtetik artearen inguruko hitzaldi sorta antolatu duen Aitor Aurrekoetxea EHUko filosofia irakasle eta arte kritikaria arituko da *La Bauhaus: Gropius y Mies van der Rohe: utopía y funcionalidad* izeneko bigarren saioan.

Azkenengo berbaldia eskainiko duena berriz, EHUko Javier Cenicacelaya arkitekturaren katedraduna da: otsailaren 25ean du Durangoko Arte eta Historia Museoan hitzordua: *Un panorama de la arquitectura actual* eskaintzera etorriko da Donostiako Arkitektura Eskolatik.

'Arkitektura: arrazoi betearen ibilbideak' hiru hizlariren ahotan

Otsailaren 4an lehenengo, eta ondorengo beste eguen bitan (otsailaren 18 eta 25ean) dira Artearen Ezaupidea hitzaldi sortaren zazpigarren edizioko saioak. Durangoko Arte eta Historia Museoan, izango dira, 19:00etan, Fernando Bajo, Aitor Aurrekoetxea eta Javier Cenicacelaya adituen saioak. Arkitekturaren ikuspegi zabala ematea da aurtengo berbaldien helburu nagusia



Aitor Aurrekoetxea:
“Entzulego fidela dugu berbaldietan”

Orain zazpi urtetik antolatzen dutenetik, “entzulego talde fidela” lortu dutela nabarmendu, baina gazteak ez direla askorik gerturatu onartu digu Aurrekoetxea irakasle eta antolatzaileak.

Gonbidapen berezia ikasleei
Etorkizunean, eta ahal bada aurtengo edizioan bertan “hobetu beharrekoen” zerrendan jasota dutena: gazteak erakartzea lortzea. Edozein espezialitatekoak izanda ere, unibertsitate ikasle guztiak bereziki gonbidatu dituzte hiru saioetara.

Orain arteko edizioetan 35 eta 50 urte inguruko entzuleak batu izan dira saioetan, eta antolatzaileek euren fideltasuna eskertu gura dute. Era berean, Museoako ateak interesa duen ororentzat zabalik daudela nabarmendu nahi dute.

Duela zazpi urte hitzaldiak antolatzen hasi zirenean ere, artearen inguruko interesa duen edonor gerturatzea izan zuten akuilu nagusia. Horretarako, zazpi urtez otsaileko eguen iluntzeetan egin dutenez, 2010. urte honetan ere adituek euren emandak “ahalik eta era dibulgatiboenean” egitea da irakasle onasmoa.

Euskal artea, estetika, literaturgintza, arte garaikidearen paradoxa eta kontraesanak, artearen zirkuituak, eta urtez urte sortzen zaizkien galderak hartu izan dituzte gogoetarako gaitzat zazpi urteotan.

Aitor Aurrekoetxea antolatzaileak gogoan bereziki gordetakoan artean, lehenengo hitzaldien gaia dago: “gai sakona aukeratu genuen zikloa estreinatzeko”, baina jende asko erakarri ei zuen. ‘Esperientzia estetiko’ hartu zuten gaitzat: koadro baten aurrean ipintzen garenean ditugun sentazioei buruz jardun zuten.

Arkitekturari buruzko aurtengo ekitaldiaren ostean, artearen inguruan gogoe-ta egin eta etorkizunerako gaiez galdetuta, 2011ko zortzigarren ediziorako olerkigintza aipatu du Aurrekoetxea. ■ I.E.

Arkitekturara gerturatuko gaituzte otsailaren 4, 18 eta 25ean hiru hizlarik

'Bauhaus: Gropius eta Mies van der Rohe' Aurrekoetxearen eskutik

1919an Alemanian sortutako Bauhaus Eskolak arkitekturaren eta diseinuaren arloan egin zuen lana “miresten” duela, azaldu digu Aitor Aurrekoetxea hitzaldien antolatzaileak aukeratu duela Gropius eta Mies van der Rohe-ren lanean oinarritzea bere berbaldia. “Irizpideak markatzerakoan erreferentziala izan delako euren lana, eta egin zuten proposamen estetiko gaundiezina iruditzen zaidalako”, dio Aurrekoetxeak hautatu duela eskola alemaniarrez jardutea.

Oso ikuspegi ezkertiarretik ulertzen zutela arkitektura ahotan izango dituen bi egileok nabarmendu digu Aurrekoetxea arte kritikariak: arkitektura eta arrazionaltasuna uztartuta sortu omen zituzten langileentzako etxebizitzak.

Otsailaren 18an, eskainiko duen hitzaldian, goian aipaturikoak eta eskola alemaniarren inguruko beste hainbat gai gerturatuko ditu Aitor Aurrekoetxea Euskal Herriko Unibertsitateko filosofia irakasle eta arte kritikariak.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

URTARRILAK 30 22:00etan
GARI
16 LORE diskoaren aurkezpena
KONTZERTUA. Sarrera: 8 euro.

OTSAILAK 5 22:00etan
DJ PATT (Txitxarro) + CHARLES RAMIREZ
+ IKER UNDERSOUND & RUBEN CUESTAS
GAU ELEKTR. I. urteurrena. Sarrera+CD: 10 euro.

OTSAILAK 6 17:30ean
II. EUSKAL HERRIKO MUS TXAPELKETA
Bizkaiko finala
MUS TXAPELKETA.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

ZINE EMANALDIA
Urtarrilak 31 • 17:30ean

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Tabira Txiki Elkartearen eskutik

HITZ

Liburubanda

11:51 601 07 76 Artekale, 14 Durango

ERITZIA >

Sei hankako mahaia



Mikel Basabe Aralar

Gutunak @

Iragarki sexistarik ez

Lehenengo eta behin, zoriondu eta eskertu egin nahi dut azken bederatzirteotan euskararen normalizazioaren alde egin duzuen lana. Hala ere kritika konstruktibo bat egin nahi dizuet.

Anboto astekarian, Lan Eskaeren atalean agertzen diren iragarki batzuen aurrean minduta eta diskriminatuta sentitzen naizela esan behar dizuet. Iragarkiok sexistak izateaz gain, lan eskubideen aurka doazela ere iruditzen zait.

Ondoren, Anbotoren azken zenbakian agertu ziren modu horretako iragarki sexista biren adibidea jartzen dizuet:

“Neska bat behar da ofizial legez ile-apaindegian lan egiteko. Egun osorako. Tel: 946xxxxxx (Xxxxxx)”

“Durangon bizi den emakume bat behar da umea zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel: 6xx xxx xxx”

Nire uste apalean onartezina beharko luke horrelako iragarkiak gaur egun edonolako hedabidetan agertzeak. Iragarkiok irakurrita diskriminatuta sentitzen naiz gizona izate hutsagatik.

Imajinatzen duzue iragarkiren bat esaten duena, “Arraza zuriko pertsona behar da albaitari moduan lan egiteko” edo, “gizonezko iturgina behar dugu berehala lanean has-teko”. Seguru horrelakoen aurrean eskuak burura eramango genituela. Ba sinistuidazue, niretzat Anboton astero irakurtzen ditudanak eta azken horiek berdinak dira.

Horregatik eskatu nahi dizuet, mesedez, gaurtik aurrera horrelako eta bestelako iragarki sexistarik ez onartzea Anboto astekarian.

Eneko Garitaonandia - Durango

Klik batean @



Bideko zuloak

Zulo hau topatu du Anbotoko irakurle batek Durangoko Anbrosio Meabe kalean. Inguru horretan bizi den lagun batek bideko zorua ahalik eta arinen konpontzea eskatzeko bidali du argazkia astekarira. “Ea zuloa handiagoa egin orduko konpontzen duten”, azaldu digu.

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Eskolak euskaldundu

Horixe izan da gure artean sarri antzean entzun izan dan leloa. Ez da lelo txarra, nahiz eta zalantzarako tarte bat baino gehiago itzi: eskolak bakarrik ba ete dauka gaur eta hemen euskalduntzeko gaitasuna? Eskolari eskatu behar jako, ala orokorra goa da egin beharreko ahalegina? Datuek erakusten dabe asko egin dabela eskolek: Gasteizen, esate baterako, hogeita bost urtean pertsona gazte elebidunen ehunekoia izugarri handitu da; gaur, 25 urtetik beherakoen erdia baino gehiago da elebidun. Astiro, baina bidean aurrera egin da. Baegoala bizkorrago, ausartago jokaterik, ez dot nik zalantza egiten.

Aurreko Jaurlearitzak aldaketa proposatu gura izan eban, ahalik eta gehien ziurtatzeko derrigorrezko hezkuntza amaitzen eben ikasleek erkidego autonomo honetan ofizialak diran hizkuntza bien jabe izan-go zirela. Ez eban gaudatu. Oraingo Jaurlearitzak be aldaketa batzuk ekarri gura ditu; teoriar, helburua berbera da. Praktikan, ikusi egin beharko, baina orain arteko jarduna zein izan daben ikusita, zalantzarikoa da eskola-arloan egingo litzatekeen edozein aldaketa benetan helburu horri begira egindakoa izatea. Gure gaur egungo agintari askoren ‘normaltasuna’ elebakarra da, eta normaltzat jotzen dabe ganera, holan izatea. Ez dabe horretan zalantza egiten.

Zalantzak zalantza, niri beste bat otutzen jata: zertarako gura dogu eskolak benetan euskaraz be jakiteko balio daian? Gure artean oraindino horixe dalako politikoki zuzena? Eloorrioko plazako hizkuntza-panorama negargarria aldatzeko balitz sikiera...



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2010eko urtarrilaren 29a - 9. urtea - 359 zk.

Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria: Jone Guenetxea.

Erredakzio burua: Joseba Derteano.

Administrazioa: Itziar Belar, Miren Abasolo eta Naiara Alzaga.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.


Erredakzioa: Aitziber Basauri, Pello Mugarza, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde eta Genma Aldalur. **Maketazioa:** Ainhoa Arizmendiarieta. **Testu**

zuzentzailea: Igor Elortza eta Garikoitz Bragado.

Argazkilariak: Iban Gorriti, Ana Dominguez eta Kepa Aginako.

SAN BLAS 2010

Abadiño



Zatoz San Blas jaiak
gurekin ospatzera!



ABADIÑO
UDALA

San Blas 2010 egitaraua

Urtarrilak 31, domeka

09:00etan, "Abadiño auzorik auzo" ibilaldia. Irten Gerediagako baselizan eta amaitu **13:00etan**, Zelaietako Txanporta kultur etxean. Irteeran argazki bat egingo zaio ibiltarien talde osoari.

11:00etan, San Blas 2010 Pilota Txapelketako finalaurrekoak, Tornosolo trinketean.

Otsailak 3, eguaztena. SAN BLAS EGUNA - AZOKA:

Ganadua, baserri-tresneria, burdineria, ortuariak, frutak, gaztaia, txakolina, ogia, ezta, artisautza eta landareak. XVIII. ABELBURU ERAKUSKETA.

09:00etan, Herriko txistularien kalejira.

10:30ean, Umeentzako tailerrak Txanporta kultur etxeko arkupean.

11:00etan, Meza nagusia San Trokaz elizan.

11:00etan, San Blas 2010 Pilota Txapelketako finalaurrekoak, Tornosolo trinketean.

12:00etan, Bertsolariak Ferialeku plazan: Gogaikarri bertso eskolakoak, Xabier Amuriza, Garikoitz Sarriugarte eta Eñaut Uruburu.

12:30ean, Herri-kirolak probalekuan eta ondoren nekazaritza sarien banaketa.

16:30ean, Erromeria Ferialeku plazan: **Lotxo** taldea

17:00etan, Idi-probak.

22:00etan, Idi-probak.

Otsailak 4, eguena. SAN BLAS TXIKI EGUNA

17:00etan, Idi-probak.

19:30ean, Abadiñoako Done Zezili abesbatzak Santa Ageda koplak abestuko ditu kalerik kale.

Otsailak 5, barikua

19:00etan, San Blas 2010 Pilota Txapelketako finalak Tornosolo trinketean.

22:00etan, Idi probak.

Otsailak 6, zapatua

11:00etan, Eskola arteko krosa (Bizkaiko txapelketa), Astola auzoan.

14:00etan, Emakume base-ritar eta artisauen bazkaria Soloa jatetxean. Izena emateko deitu telefono zenbaki honetara: 662 326 118.

17:00etan, Idi-probak.

18:00etan, Asier Kidam magoaren saioa Txanporta kultur etxean (euro bat).

18:30ean, pilota partidu profesionalak: lau t'erdian:

Amantegi-Nagore; binaka: **Bengoetxea VII-Gorriti / Antxia-Zabala**.

Otsailak 7, domeka

17:00etan, Idi-probak.

Otsailak 8, astelehena

21:30ean, Idi-probak. Ondoren, sari banaketa.

Otsailak 13, zapatua

10:00etan, XXII. Burduntziko bildots txapelketa. Txakolin erakusketa.

14:00etan, Bildots bazkaria probalekuan. Bazkalondoa Oihergi taldeak alaituko du.

18:00etan, Kixka antzerki taldearen **Bolaluma** antzezla- na ikusgai (euro bat). Sarrerak otsailaren 8tik eskuragarri Txanporta kultur etxean (gehenez sarrera bi erosi ahalko dira pertsonako).

OHARRA

Otsailaren 15etik 20ra, Argazki Lehiaketako argazkien erakusketa egingo da Txanporta kultur etxean.

ORDUTEGIA:

Astegunetan: 15:00etatik 20:00etara.

Zapatuan: 12:00etatik 14:00etara / 17:00etatik 19:00etara.

ABADIÑOKO GAZTETXEA ETA TXOSNAGUNEA

Urtarrilak 29, barikua

21:30ean, Bertso afaria: **Maialen Lujanbio** eta **Jon Maia**, Gaztetxean. Txartelak Larrano tabernan eta Oregi jatetxean salgai.

Urtarrilak 30, zapatua

22:30ean, kontzertuak Gaztetxean: Sermond's (Elorrio), Eureka Hot 4 (Bermeo) eta Supermirafiori (Madril).

Urtarrilak 31, domeka

18:00etan, antzerkia: Aritza Rodriguezen eskutik **Hilario Mortimer** klown ikuskizuna.

Otsailak 5, barikua

20:00etan, kontzertuak Gaztetxean: **Against Therapist** (Bergara), **Last Revels** (Arrasate), **Unde- fated** (Algorta), **Erasoka** (Algorta). **22:30ean**, Txosnetan herriko eta Durangaldeko taldeekin jaialdia: **Tribute to RIP**


(Abadiño), **Delirium Tren Ez** (Abadiño) eta **Pixontxis** (Elorrio).

Otsailak 6, zapatua

20:00etan, kontzertua eta erromeria txosnetan: **Habeas Corpus** (Madril) eta **Trikizio** (Goierri).



Askatasun etorbidea 48 • 48200 Durango
Tel.: +34 94 681 02 48 • Fax: +34 94 621 77 15



Lujanbio eta Maia, festari hasiera emonez

Indartsu hasiko dira San Blas jaiak. Bertso-afaria egingo da gaur gauean Gaztetxean, Maialen Lujanbio eta Jon Maiarekin. 21:30erako ipini dute mahaian jartzeko ordua.

Puntu-puntu helduko dira Lujanbio eta Maia Abadiñora. Hilabete pasatxo da Euskal Herriko Txapelketa Nagusia amaitu zela, eta ondo trebatuta etorriko dira, beraz, finalista izandako bi bertsolariok.

Lujanbio, gainera, txapel beltza defendatuko du bertsozaleen aurrean. Oso maila onean ibili zen udazken osoan, eta finalean faborito argietako bat zen. Azkenean, Andoni Egañari urteetako agintea kendu zion, eta itxarotekoa da Abadiñon ere maila bikaina erakustea. Maiari dagokionez, txapelketako jardunagaz eta sailkapenagaz gustura geratu zen, eta batek baino gehiagok gogoratuko ditu bakarkako lanetan eskainitako bertso hunkigarriak.

Ezin ahaztu, txapelketetatik aparte, plazako bertsolari finak direla hernaniarra eta zumaiarra. Seguru gaztetxeko afalostea ederto girotuko dutela euren graziarekin eta bertso sakonekin.



'Auzorik auzo' herriko bazterrak ezagutuz



Ibilaldia Gerediaga auzoan hasiko da. Izena eman eta familia argazkia atera ostean irtengo dira parte-hartzaileak

Abadiñoako auzoak zeharkatuko dituen ibilaldia antolatu du Hamabi Harri auzo elkarteak domekarako. Gerediagako baselizan goizeko 08:30ean jarri dute sinatze-ekitaldirako ordua. Irteera 09:00etan izango da, familia argazkia atera ondoren. Parte-hartzaileek ia ibilbide osoan asfaltozko bidea izango duten arren, Gerediagan eta Irazolan baso bide bi zeharkatuko dituzte eta baita Mendiolako galzada ere. Irazolan 11:30etik aurrera salda banatuko dute indarrak berri eta ibilbideari berriro ere ekiteko.

Antolatzaileek Zelaietako Txanporta kultur etxearen aurrean jarri dute helmuga. Goiza

bidean eman dutenentzako luntxa eta erromeria izango dira bertan.

Tradizioa

Auzorik auzo ibilbidea tradizio bilakatzen ari da San Blas-etako jai egitarauan, aurten bosgarrenez egingo dute eta. Antolatzaileek aurreko urteetan moduan ekitaldiak harrera ona izatea itxaroten dute. Ibilaldi amaieran hainbat sari zozketatuko dituzte izena emandakoen artean.

Ibilbidea: Gerediaga-Astola-Gaztelua-Muntsaratz-Irazola-Sagasta-Mendiola -Zelaieta

OLONDO JATETXEA
 • SAN BLAS MENU BEREZIA •
Zator eta goratu naturaz!
 TEL.: 94 681 42 64
 MENDIOLA • ABADIÑO

Iturritxo kalea, 7
Abadiño
LARRANO TABERNA

SERRATU S.L.
**GALDARAGINTZA
 ETA ITXITURAK**
 Astola, 48 48220
 ABADIÑO Bizkaia
 Tel.: 94 620 18 37
 Fax: 94 681 86 35
SERRATU S.L.
 Enpresetan mantenimentua

LEANIZ TRESNAK **SAME**
BASERRI TRESNAK **pasquali**
 salmenta eta konponketa
 Orain
 Suministros Arga
LEANIZ TRESNAK
 darama
STIHL®
Husqvarna
 Leaniz auzoa - 48230 ELORRIO - Bizkaia
94 623 15 43 **agria**

Azoka: produktuen, aberreen eta jaiaren erdigune

Baserritarrek produkturik onenak ekarriko dituzte otsailaren 3ko feriara



IBAN GORRITTI

Euskal Herriko feria garrantzitsuenetakoa da Abadiñon San Blas egunean egiten dena. Baserritarrentzako egun handia da berau, euren produktuak jende askoren aurrean erakusteko aukera ematen baitie. Jateko produktuekin batera, ganadua eta lanerako erramintak edo makineria ikusgai izango da Zelaietan zehar.

Goizeko 09:00ak inguruan zabalduko dira erakustokiak, eta eguerdira arte egin ahal izango da bisita. 84 stand-etan banatuta, deneriko ekoizpenak izango dira han eta hemen: gazta, ogia, barazkiak, txakolina, foie, pastelak...

Artisauek egindako lana erakutsiko dute, eta, zelan ez, baserri-laneko tresneriak ere izango du lekua.

Ganadu erakusketa

San Blas egunean begirada askoren hartzaile izan ohi da ganadua. Animaliak erosteko gune egokia izaten da baserritarrentzat, eta gainera koentzako ere interesgarria izan daiteke; umeez arreta handia ipintzen dute dotore-dotore prestatutako ganaduairengan. Aurtengo honegaz, XVIII. edizioa beteko du abelburu erakusketak.

Jai-giroa

Azokara buelta bat ematen joateak lagun artean egon eta jaiaren murgil-

tzeko aukera ematen du. Goizean goizetik herriko txistulariek eguna zabalduko dute, eta eguerdi partea bertsolariek alaituko dute.

Umeentzako tailerrak ere prestatuko dituzte Txanpota kultur etxean.

Aurtengo honegaz, XVIII. edizioa beteko du abelburu erakusketak

Goizeko 09:00ak inguruan zabalduko dira feriako erakustokiak

AZOKA DATUETAN

Ordutegia

Goizeko 09:00etatik eguerdira arte

Ekoizleak

84

Produktuak

Gazta: 16 stand

Ogia: 9 stand

Arrautzak: 2 stand

Euskal pastela: 2 stand

Ortuariak: 7 stand

Eztia: 8 stand

Foie: 3/4 stand

Txakolina/sagardoa: 6 stand

Txorizoa/solomoa: 4 stand

Fruta: 2 stand

Piperrak: stand 1

Babak: stand 1

Ontziraturakoak: stand 1

Bereziak

Komertzio justua
Ibilaldia

EROSKI
zurekin
ABADIÑO

Ondo pasau
San Blas jaietan!

JUAN BERISTAIN
Mekanizal. Tresnak

Salmenta eta konponketa

HONDA
STIHL
SAME
BCS
CARON

San Blas egunean Abadiñon topatuko gaituzun

Oidor Berriozabalbeitia, 14 • 48230 Elorrio (Bizkaia)
Tel-Faxa: 94 623 18 03

HOTEL
☆☆
San
BlaS

□ Arrati 2000
Jatetxea

946 814 200 - 946 814 516
Faxa: 946 814 200
Bilbo-Donosti errepidea 32. Km
48 220 MATIENA - ABADIÑO



Idi-probak, jaietako ezinbesteko zita

16 idi-pare etorriko dira Abadiñora, Euskal Herri mailan izen handia duen sariketan parte hartzera

Azokagaz batera, arrakasta gehien duen ekitaldietakoa da idi-probena. Ezarritako arauen eta beste arazo batzuen ondorioz, azken boladan parte-hartzea jaitzi egin da hainbat tokitan, baina Abadiñon mantentzea lortu dute. Aurten, 16 pare ibiliko dira harriari tiraka probalekuan.

Erauzkin, Landazabal, Bilbao, Nardiz, Mendipe eta Laski izango dira Bizkaiko ordezkariak

Aipatzekoa da, 16 buztarrietatik 10 gipuzkoarrak direla; gainerako 6ak bakarrik dira bizkaitarrak. Bermeoko Erauzkin, Laukizko Landazabal, Erandioko Bilbao eta Billelako (Mungia) Nardiz, Mendipe eta Laski izango dira herrialde honetako ordezkariak.

Gipuzkoarrei dagokienez, Errenteriako Irarreta anaien artean lau pare ekarriko dituzte. Aia, Oiartzun, Orio, Urretxu eta Goierritik etorri-

ko dira besteak. Borroka gogorra egongo da sari nagusia irabazteko.

Lehen bi saioak otsailaren 3an izango dira, San Blas egunez. Arratsaldeko 17:00etan eta gaueko 22:00etan ekingo diote harria tiratzeari. Zalantza barik, saio horiek izango dira bereziak, egun handian jokatuko dituzte eta. Hortik aurrera, hilaren 6an, 7an eta 8an segituko du txapelketak. Zapatuan eta astelehenean 22:00etan dira hitzorduak, domekan, berriz, 17:00etan. 8an, azkenengo saioa bete eta bertan egingo dute sari banaketa.

Herri-kirolak

Idi-probez gainera, San Blas egunez herri-kirolen erakustaldia ere antolatuko dute. Eguerdiko 12:30ean hasiko da jaialdia, probalekuan.

Gipuzkoarrei dagokienez, Errenteriako Irarreta anaien artean lau pare ekarriko dituzte

Argazki Rallytik, lehiaketara

Azken urteetan ohitura izan da San Blas egunez Argazki Rallya egitea, baina aurten, antolatzaileek formatoz aldatzea erabaki dute. Jaietako egun guztiak kontuan hartu ahal izango dira lehiaketan.

Izen-ematea

Izena ematen duten lehenengo 42 lagunek parte hartu ahal izango dute lehiaketan. Argazkiak aurkezteko azken eguna otsailaren 12a izango da, eta gaia, zelan ez, San Blasak 2010 izango da. Hori bai, partaide bakoitzak bi argazkiko muga edukiko du kopuruari dagokionez.

Epaimahaiaren ustez onena den argazkiaren jabeak 400 euro batuko ditu, txapelduordeak 250, eta herriko egile onenak 150 euroko akzesita jasoko du. Aurreratu duteenez, parte-hartzaile batek ere ezingo du sari bat baino gehiago irabazi.

Informazioa gura duenak, Errota eta Txanporta kultur etxetan du eskuragarri.

Erakusketa

Hilaren 15ean jakinaraziko du epaimahaiak bere erabakia, eta egun horretan bertan zabalduko dute erakusketa aukeratutako argazkirik onenekin.

Bost egunez izango da ikusgai erakusketa Txanporta kultur etxean, otsailaren 20a bitartean, hain zuzen ere.



MIKEL HARATEGIA
Eskolakua, 2 Tel: 946 815 452
48220 ABADINO

Juan Ramon Azkonizaga
Ortuzar auzoa, 1 - IZURTZA Biltegia: 94 681 06 52

Banatzaleak:

Oregi Taberna

Ospatu San Blasak gurean!

94 681 07 83 • Matiena (Abadiño)

Pilota jaialdiak eta gazteen krosa



Jaietako kirol eskaintzari dagokionez, pilotak hartuko du indarra. Jaialdi esanguratsuena profesional mailan antolatutakoa izango da; gainera, etxeko bi gazteren joko ikusteko aukera emango du.

Otsailaren 6an, zapatuan, arrastiko 16:30ean hasiko da festibala. Lehen partidua kaiolaren barruan, 4 t'erdian, jokatuko dute Jorge Nagorek eta Egoitz Amantegik. Kaiolan espezialista da Nagore. Ondoren, Ander Antxiak jokatuko du binaka, Zabala lagun duela. Bengoetxea VII eta Gorritiren aurka lehiatu beharko dute.

Pilotagaz segituz, San Blas torneoko finalerdiak jokatuko dira urtarrilaren 31n eta otsailaren 3an. Finala 5ean izango da.

Atletismoa

Guztia ez da pilota izango, ordea. Atletismo zaleek Bizkaiko Eskolarteko Krosagaz daukate zita, otsailaren 6an. 11:00etan hasiko da Astola partean.

Egoitz Amantegik eta Ander Antxiak parte hartuko dute hilaren 6ko jaialdian

Gerrialdeak eta buruak astintzeko musika

Erromeria eta rock estiloak tartekatuko dira jaietan; Madrileko Habeas Corpus taldeak bere abestiak eta bertsoak ekarriko ditu



Heldu eta gazte, dantzazale zein rockero, adin eta gustu guztietarako musika izango da San Blasetan. Egitarauan, Habeas Corpus taldea ageri da

Rarezas disko berrian, bertsoak egin ditu Habeas Corpusek

letra larriz eta azpimarratuta. Eskualdean jarraitzaile ugari ditu talde horrek, eta seguru Txosnagunea bete egingo dela otsailaren 6ko kontzertuan.

Urte askotako esperientzia duen taldea da Habeas Corpus. 1994an sortu zen, eta geroztik makina bat disko argitaratu ditu. Hardcore estiloan hara eta hona ibili izan dira madrildarrak, baina gauza berriak probatzeko gaitasuna ere erakutsi dute. Horren adibide da euren azken diskoa: *Rarezas*. 2009an kaleratutako lan horretan, talde arrakastatsuen bertsoak egin dituzte: Sex Pistols edota Sick Of it All taldeak daude horien artean.

Kritika soziala elementu garrantzitsua da euren kantagintzan, eta orain disko berria

prestatzen dabilta. Oraingoan, Escuela de Odio taldeagaz konpartituko dute proiektua, *A Dolor* izeneko lan bateratuan.

Jai giroan

Eskualdeko rock taldeek ere izango dute euren lekua Abadiñon. Gaztetxean zerranda luzea dago kontzertuei dago-kienez. Horretaz gainera, azkenaldian inguru honetan kontzertuz kontzertu dabilzan hiru talde izango dira

Eskualdeko rock taldeek ere izango dute lekua Abadiñon

Erromeriarako, Lotxo eta Triki-zio taldeak azalduko dira

Txosnagunean: Delirium Tren Ez, Pixontxis eta Tribute to RIP. Eskualdeko lagunuen aurrean joko dute otsailaren 5ean.

Bestalde, erromeriarako Lotxo eta Triki-zio azalduko dira. Lehenak ferialekuan joko du San Blas egunez 16:30ean, eta bigarrenak txosnetan otsailaren 6an, Habeas Corpusek kontzertuaren ostean.

Aipatzekoa da, baita ere, Done Zezili abesbatzak Santa Agedaren koplak abestuko dituela kalerik kale, otsailaren 4ko eguneko tradizioari jarraituz. 19:30ean irtengo dira.

Bodega Launa
www.bodegaslauna.com
info@bodegaslauna.com
Tel.: 94 682 41 08

ESTANKOIA
loteria primitiva
Arrinda Mondragon
Alfredo Baeschlin kalea, 7 • 48220 Abadiño
Tel.: 94 620 13 85

BANAKE TAK MIOTA S.L.
Miota, 6 behea - 48230 ELORRIO
Tel.: 94 623 18 92 - Faxe: 94 682 06 51

Indegia
elebe
Iturriko kalea 2 behea
48220 abadiño
94 655 01 05



Z E L E T A B E
Auzoa Promociones S.A.



1, 2 eta 3 gelako etxebizitzak

Kalitaterik oneneko materialak

- Etxebizitza guztiek honakoak dauzkate:
 - Sukalde modernoak beharrezko guztiarekin.
 - Haritzeko tarima eta barruko atek. Ateen pieza metalikoak kromatuta.
 - Horma-armairuak. Barrualdea hornituta.



Iturritxo, 7 behea eskuma • 48220 Abadiño
Tel./Fax: 94 466 89 56

“Bertsotan egiteak lotura handia dauka psikologiagaz”

San Blas eguneko bertso saioa giroa berotzeko errezeta ezin hobea izaten da. Xabier Amuriza eta Garikoitz Sarriguartegaz batera, Eñaut Uruburu Sabadiñarra izango da kantuan. Maisu den Gogaikarri bertso-eskolako gazteek ere abestuko dute aurretik.



Eñaut Uruburu •

- Gogaikarri Bertso-eskolako irakaslea
- 21 urte

Bertsolari eta maisuaren paperean arituko zara. Nerbiorik?

Momentuan bertan larrituko gara apur bat, agian. Bertso-plazak oso noizik behin izaten ditugunok saioan egingo ete dugunaren inkognitaz igotzen gara oholtzara. Gazteengatik ez naiz askorik larritzen; badakit ondo egingo dutela.

Plaza polita eta garrantzitsua da San Blas eguneko, ezta?

Abadiñarra izanik polita ez denik ez dut esango, bestela baten batek akabatuko nau! Baina, bai, herriko jaiei zeure partetik zeozertxo ematea beti da gustagarria. Niretzako bigarren urtea da aurtengoa. Hala ere, eskolako kide moduan aurretik kantatua naiz Azpillagari-eta bertso gogaikarriren bat edo beste.

Zergaitik Gogaikarri izena?

Lehenengo irakaslea, Beñat Gaztelu-Urrutia, batzuetan gogaikarri inguratuta sentitzen zela uste dut, eta hala bataiatu zuela. Nik hiru urte daramatzat ardura horregaz.

Orain zeu zara irakaslea...

Irakasle baino, gurago dut eurei laguntzen ahalegintzen naizela esatea; azken batean, eurak ikusi

eta entzunda norbere buruaz ere asko ikasi daiteke.

Anaia ere ikasle duzu. Zelan moldatzen zarete?

Ondo konpondu behar! Anaiagaz batera, baina, beste hiru gazte ere etortzen dira. Elkarren lagunak izan arren, bertsotan egin gura dutelako hurreratzen dira, eta hori oso inportantea da.

Psikologia ikasten zabilta Donostian. Ez ete duzu bertsolari gipuzkoarren ainerik hartuko...

Ez dut pentsatzen, baina zerbait arraroa igartzen baduzue esan egidazue! Ez uste halako inbidiarik diedanik. Urrunera joan barik, gure inguruotan bada nondik ikasi.

Balio al du psikologiak bertsolaritzan?

Nire ustez, bertsotan egiteak lotura handia dauka psikologiagaz. Gorputzaldirik onenagaz egoten saiatu behar duzu, jendearen aurrean egoteko gai izan behar zara, zeure buruarengan konfiantza izan behar duzu...

Zer aipatuko zenuke San Blas jaien inguruan?

Abadiñarra izanda zer esango dut bada! Eguna bera osotasunean ederra dela iruditzen zait. Baina urte gutxi barru, parajeotako belar apurra galipotak tapatu eta pata-tak erein beharrean plastikoa bakarrik jatera ailegatzen garenean, etiketaz jositako itxurakeria bat baino ez izateko arriskua dago.



ERLIA
CONTENEDORES

www.contenedoreserlia.com

646 247 350
946 814 107

- Obra-hondakinen bilketa hainbat neurriko edukiontzietan
- Geure zabortegia

- Agregakinen banaketa
- Industria eta eraikuntzako ondar bizigabeen kudeaketa

Arta auzoa, z/g • 48220 ABADIÑO • Fax: 946 810 204



anboto >



Lokal berriaren inaugurazioa Anbotoko lagunen bilgune

Anbotok Iurretan duen egoitza berria inauguratu genuen eguaztenean. Goiuria kultur gunean batu ginen, eta Xabier Amurizak zuzendutako ekitaldian Eraz aldizkariagaz ereindako hazia gogora ekarri genuen. Langile, kolaboratzaile, udal ordezkari eta eskualdeko elkarreetako kideez gainera, kultur eta kirol arloko hainbat aurpegi ezagun elkartzeko aitzakia parebakoa izan zen. Anbotori hainbeste urtean babesa eman dioten lagunen berotasuna jaso genuen bertakook.

Obrak
Egoitza berria auzolanaren emaitza izan da. Aurreko lokala zaharrituta zegoen eta proiektu berrietarako txiki gelditu zitzaigun. Lokal berriak begiratzen hasierakoan Josu Munitxa bidelagun izan

genuen. Bere gomendio barik batek daki zein lokal aukeratuko genuen. Ez gara gu obra kontuetan adituegiak. Olatz Elortzak alde juridikotik lagundu zigun. Lekualdaketan bete genituen furgotekak ere ez ditugu erraz ahaztuko. Uxuri Unzaluren (Gaztelurrutia ardoak) furgoneta handian Beñat Gaztelu-Urrutiak utzitako mahaiaren bila Santikurutzeko aldapa igo genueneko ere ez. Abasolotarrek ere furgonetagaz bueltaren bat eman dute. Ander Maortua arotz-lanetan jarri dugu mahaiak neurritan egiteko. Markiegi, Egia, Fontaneria Ortuzar, Elaia, Tafrik, Zuhaitz, Zure Glass eta Serapio Calvoko beharginak ere buru-belarri ibili dira lanean. Dida komunikaziokoek dekorazio txukuna prestatu digute. Jose Antonio Derteano eta Bego Arrinda brikolajea eta garbiketetan ari-

tu dira. Fotopolimeros Betikoak auzokide berriei behin baino gehiagotan jo diegu atea erramintat eske. Ibai Urienek (Sagastamargogintza) ziztu bizian margotu zizkigun hormak. Iurretako Udalak esku zabalik hartu gintuen herrian. Inauguraziorako Etxe abeslaria, Karrikakoak, Bideografikekoak, Berbarotarrak, Saltsaneko Iñaki Urien eta Unax Unzalu (Gaztelurrutia ardoak) izan doguz aldamenean. Kimetz Zenitagoia 'Dumy'-k irratiko aparatua ekartzen lagundu digu. Eloorrioko Udalak ere Anboto Irratia bultzatzen jarraitzen du. Eskerrik asko guztioi inauguraziora etortzeagatik, denon artean lokal ederra izatea lortu dugu-eta.
Orain lanean jarraitzeko ordua da erronka berriak jomugan jarri eta haiek ere denon artean lortu ditzagun. ■ J.G.

Goiuria kultur elkartean



Gorka Barrueta (DHKko lehendakaria) eta Maku Florentino (Elorriko zinegotzia)



Maribel San José (Kirol Jokoak) eta Unai Iturriaga



Xabier Amuriza aurkezle lanetan



Hilario Pérez (Tabirako) eta Ander Gorrotxategi (Durangoko EA)



Inaugurazio ekitaldi kronika iruditan

Luntxeko berriketaldiak



Unai Esturo eta Asier Iturriaga (Plateruena)



Joxe Garaizabal eta Alberto Errazti



Carmen San Pedro (Zaldibarko EA)



Lorea Muñoz (Izurtzako alkatea), Ana Isabel Oar-Artera eta Iker Ballarín (Izurtzako zinegotzia)



Marijo Deogracias, Jone Guenetxea, Xabier Migelez eta Iratxe Astui



Karrika antzerki taldeko kideak

razio liko a n

Anbotoko egoitza berrian



Iñaki Gil (lurretako EAJ), Jose Luis Zubillaga (lurretako EB) eta Gontzal Sarrigoitia (Garaiko alkatea)



Aitziber Basauri, Idurre Garcia, Iratxe Astui, Bakarne Bernedo eta Asier Arroita



Argazkiak: Ana Domínguez



Anbotoko langile batzuk



Berberotarrak



Idoia Agorria (Durangoko PSE-EE), Mauricio Garcia (UGT) eta Santiago Reyes (+Dendak)



Markel Onaindia, Xabier Zabala (Bideografik), Ibai Urien eta Endika Blanco



Juanito Gallastegi, Kristina Mardaras eta Igor Elortza



Dani Maeztu (Durangoko Aralar) eta Jon Artza



Mikel Aiartzaguena eta Aitor Iturriaga (LAB)



Jasone Agirre, Idurre Maortua eta Xabier Migelez



Astekaria

Anboto astekariak hainbat aldaketa izan ditu azken urteotan. Orrialde kopurua handitu genuen eta diseinua gaurkotu ere bai. Anboto Komunikabideak gaurkotu eta sendotu dugun honetan, hizkuntza irizpideak ere egokitzeko sasoia dugu. Astekarian batua eta bizkaiera tartekatu ditugu orain arte; bizkaierari prestigioa emateko, batetik, eta irakurle alfabetatu bakoari gertutasuna eskaintzeko, bestetik.

Helburu biok bete ditugulakoan, beste salto bat egiteko sasoia da: bizkaierazko berbek eta esateko moduek lehenetsia izango duten batua izango da, aurrerantzean, astekariaren euskara eredu. Izan ere, batua ez da euskalkiak baztertzen dituen eredu, ezpada euskalkiek lekuan lekukotzen eta aberasten duten estandarra, eta zeregin hori Anboto Komunikabideei ere badagokie. Gaurko eta etorkizuneko gure hartzailerak gehienak, gainera, euskaldun alfabetatuak dira; bizkaieraz beste batua zehazki diren gazteak asko, eta batetik abiatuta euskaldunetakoak ere ez gutxi. Eredu horixe landuko dugu idatziz, paperean eta webgunean. Ahoz, berriz, irratian bizkaieraz betiko legez.

Irratia

Anboto Irratian Internet bidez on-line emititzeari ekin diogu. Beraz, inguruko berriak mundu zabalean zein Durangaldean ezagutzeko aukera dugu. Azken asteotan sistema berri horretara moldatzeko probak egiten ibili gara FMko 99.00an.

Programazio berriari dagokionez, datorren astetik aurrera goizeko 10:00etatik 11:00etara albistegia izango dugu eta 11:00etatik 13:00etara magazina. Eskualdeko albistek eta elkarrizketek beteko dute goiza. Eguneko gainerako orduetan euskal musika izango da nagusi.

Anbotoko hiru hedabideetako lantaldea leku bakarrean batzeko helburuagaz, Elorriotik egoitza berrira ekarri dugu irratia. Indar txikiak batzeak garrantzia handia du herri mailako hedabideetan.

Indarberrituta eta ilusioz jarri dugu martxan irratien aro berri hau.



Web


Durangaldean gertatzen ari dena berehala ezagutzera ematea da www.anboto.org webguneraren helburua. Edozein komunikabidek bere lekua behar du sarean.

Anbotok Interneten duen txokoak geroago eta bisi-ta gehiago ditu. Orain zazpi urte sortutako ataria itxuraldatu dugu aurten. Diseinu aldaketarekin informazioa zabaltzeko aukera gehiago ematen ditu webguneak: albistek, bideoak, elkarrizketak, argazkiak, astekaria pdf formatuan jarrita, agenda... dira webguneak lantzen dituen edukiak. Bertan jartzen ditugun bideo denak Youtube-en ere ikusgai daude.

Gida komertziala ere jarri dugu martxan. Eskualdeko denda zein zerbitzuen datuak eta kokapena ezagutzeko aukera parebakoa eskaintzen du orain Anbotoko web berriko Gida komertzialak.

Webgunearekin astekariak espazio eta maiztasun aldetik dituen mugak gaititu ditugu.

Heldu da garaia, zatoz gu ezagutzera



Maria Bitarteko ikastetxean
Zuen beharretara
moldatuko gara.

Lourdesko Ama ikastetxean
**ATE IREKIEN
JARDUNALDIA**
otsailaren 3an
18:30etatik 19:00etara

María Bitarteko eta Lourdesko Ama ikastetxeak

- Bertako euskera eta euskal kulturaren bultzatzaile.
- Hautzaindegia "zeuen beharretara" goizeko 7:30etatik arratsaldeko 19:30etara. Eskolako ume guztiarentzako zabalik.
- Uztaile osoa zabalik.
- Dramatizazioa eta psikomotrizitatea.
- Ingelesa 3 urtetik aurrera.
- Herriaren erdian kokatuta.
- Baliabide didaktiko guztiak eta hazkuntza berritapena.
- Elkarbizitza baserrian eta barnetegietan.
- Zelai zabalak, natura erdian ikasteko eta gozatzeko.
- Jantokia, bertako irakasleekin, 0 urtetik aurrera.
- Lan talde gaztea, esperientzaduna, inplikaturik eta etengabeko heziketan.
- Ikasleen jarraipen eta orientabide zerbitzua familien harreman estuarekin.
- Liburutegia: ikasketak lortu eta giroa irakasleek zuzendua, DBHrako 16:00 - 18:00 eta LHrako 17:00 - 18:00.
- Ingurugiroko hazkuntza: energia garbiena bultzatzailea eta eskola ortua.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: karate, gimnasia eritmikoa, yoga, kitarra...
- Eskolako aldizkaria.
- Baloreen hazkuntza.
- Uztailean Udako Eskola.

Proiektua martxan



Maria Bitarteko ikastetxea
Urarka, 2 - tel. 94 623 16 26
mariabitartekoikastetxea@hotmail.com

Lourdesko Ama ikastetxea
Lourdes etorbidea, 8 - tel. 94 682 00 56 fax. 94 623 16 95
lourdeskoama@hotmail.com

www.lourdesmariabitarteko.com

OTSAILAREN 1tik 12ra **MATRIKULA ZABALIK**

AGENDA >

> ANBOTOk agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Urtarrilaren 29an, 22:00etan KIPULAREN BIHOTZA

Bihotzaren eta arimaren barrura eramango gaituen bidaia aurkezten digu Sua Urana berri-tarrak. Dantza-ikuskizuna pieza interesgarria izango da, "butoh" teknika japoniarra erabiltzen baitu. Uranak dio kipula antzekoak garela, bidea galarazten diguten iraganeko bizipenez beteta gaudelako. Ilusio handia dauka aurre-estreinaldia etxean egingo duelako, Berrizko kultur etxean.

ANTZERKIA

ELORRIO

» **Aitarekin bidaian, (Jose Ramon Soroiz)** Urtarrilaren 29an, 22:00etan, Arriola Kultur Gunean.



» **Umeentzako antzerkia "Uharteko ezezagunaren istorioa"** urtarrilaren 31an, 17:00etan, Arriola Kultur Gunean.

ERMUA

» **"Euskarazetamol"** Ez dok hiru bikoteatroaren eskutik urtarrilaren 29an, 22:15etan, Lobiano Kultur Gunean.



» **Haurrentzako antzerkia "Ipuinez Ipuin"** urtarrilaren 30ean, 17:00etan, Lobiano Kultur Gunean.

ZALDIBAR

» **"Beti lagun" txotxongilo ikuskizuna,** Rosa Martinezen eskutik 4 eta 9 urteko umeentzat. Urtarrilaren 29an, arratsaldeko 18:00etan, Liburutegian.

ZORNOTZA

» **Umeentzako antzerkia "Uharteko ezezagunaren istorioa"** urtarrilaren 30ean, 18:00etan, Zornotza Aretoan



BESTEAK

IURRETA

» **Iurretako Txirindulari elkarteak ibilbideak antolatu ditu.** Urtarrilaren 30ean eta 31an 10:00etan Iurretan

BERTSOAK

IURRETA

» **Sapuetzeko Bertsolari gazteen Txapelketako finala:**

-Miren Amuriza, Aitor Urbiet, Nekane Zinkunegi eta Aitor Arrizubieta. Urtarrilaren 29an 20:30ean

DANTZAK

BERRIZ

» **Kipularen bihotza** Ikuskizuna eskainiko du Sua Urana dantzariak urtarrilaren 29an Kultur etxean 22:00etan.

DEIAK

DURANGO

» **Genero biolentziaren aurkako elkarretaratzea.** Eguenero, arratsaldeko 20:00etan, Andra Mariko elizpean. Plataforma Feministak deituta.

» **Odola emoteko aukera,** eguenero, 16:30etik 21:00etara, Anbulatorio Zaharrean. Mugarra odol-emaile elkarteak deituta.

ERAKUSKETA

DURANGO

» **"Sudurra sartzen. Esentziak eta usain naturalak"** erakusketa otsailaren 14ra arte, Ezkurdi Plazan



» **Legazpiko Arkatza kultur elkartearen margo erakusketa.** Otsailaren 19ra arte, Andragunean.

» **Uribarriko Andra Mari. 500 urteko historia.** Urtarrilaren 29a arte, Arte eta Historiaren Museoa.

ERMUA

» **Margo erakusketa. "Patologías número 2: el arco senil"** otsailaren 1etik 14ra.

» **Margo erakusketa. Argiñe Berrojabilzen margolanak.** Urtarrilaren 18tik 31ra arte, Lobiano kultur gunean.

ZORNOTZA

» **"El silencio del ser" erakusketa.** Koldo Etxebarriaren lana otsailaren 15era arte Zelaieta zentroan.

IKASTAROAK

ABADIÑO

» **Sexualitate tailerra,** barikuetan, 18:00etatik 21:00etara. Izena emateko Berdintasun Sailera jo (berdintasuna@abadiano.org).

DURANGO

» **"Las matemáticas en la vida cotidiana"** otsailaren 1ean arratsaldeko 19:00etan Durangoko Udal Liburutegian.

» **"Lecciones de economía"** otsailaren 2an arratsaldeko 19:00etan Durangoko Museoa

» **"La religión y la sociedad actual"** otsailaren 3an arratsaldeko 19:00etan Durangoko Museoa

» **"Lecturas acompañadas de los clásicos"** otsailaren 3an arratsaldeko 19:00etan. Durangoko Udal Liburutegian

» **Patinaje ikastaroa,** zapatuetan. 6 eta 15 urte bitartekoentzat, 16:00etatik 17:30etara. Nagusientzat, 17:30etik 19:00etara, Kurutzia Ikastolan. (Informazio gehiago: 94 603 0031)

» **Dantza ikastaroa,** martitzen eta egueneroan. Gauero 21:00etatik 22:00etara, Landako kiroldegian izango da. (Informazio gehiago: 94 603 0031)

» **Streching ikastaroa,** barikuetan, 20:00etatik 21:00etara, Landako kiroldegian. (Informazio gehiago: 94 603 0031 telefonoan).

» **Euskal dantzen ikastaroa.** Martitzenero, iluntzeko 19:30etik 21:00etara, Plateruena Kafe Antzokian, AIKO taldearen eskutik.

» **Adinekoentzako denetarikoa ikastaroak: Landare kontserba eta mermelada ikastaroa, adimen emozionala, etxeko kontabilitatea (Excel), argazkiak moldatzeko ikastaroa, landare osasungarriak eta elikadurari buruzko ikastaroa, barreterapia eta adinari buruzko ikastaroa.**

Izen-emateak Durangoko adinekoen udal egoitzan.




» **Tailerra: Eleberri Beltza.** Apirila bitartean izango dira eskolak. Hamabost egunean behingo maiztasunagaz, Juana Lopez de Muniain-en eskutik. Izena emoteko Liburutegira gerturatu.

IPUINAK

DURANGO

» **Virginia Imaz. Umeentzako ipuin kontalaria.** Hilaren 31n, 12:00etan liburutegian.



IURRETA

» **Juan Arjona. Helduentzako ipuin kontalaria.** Hilaren 29an, 20:00etan liburutegian.

» **Maite Arresegaz umeentzako ipuin kontaketa saioa.** Urtarrilaren 30ean. 12:00etan 3-5 urte bitartekoentzat. 12:30etan 6 urtetik gorakoentzat. Liburutegian.

JAIAK

ABADIÑO

San Blas jaiak

» **Bertso afaria Maialen Lujanbio eta Jon Maia.** urtarrilaren 29an, 21:00etan, Gaztetxean.

Kontzertuak

Supermirafiori, Sermonds, Eureka eta Hot 4, urtarrilaren 30ean 22:00etan Gaztetxean.

» **"Abadiño auzorik auzo" ibilaldia.** Urtarrilaren 31n. Hasi Gerediagako baselizan 9:00etan eta amaitu 13:30ean Txanporta Kultur etxean.

» **Hilario Mortimerren klown ikuskizuna** Aritza Rodriguezen eskutik, urtarrilaren 31n Gaztetxean 18:00etan

» **San Blas 2010 Pilota Txapelketako aurre-finalak eskuz** urtarrilaren 31an Tornosolo trinketean 11:00etan.

» **Zinekluba** otsailaren 2an Gaztetxean.

» **San Blas Eguneko Azoka otsailaren 3an.**



» XVIII. abelburu erakusketa
» 9:00etan Herriko txistularien kalejira
» 10:30ean umeentzako tailerrak Txanporta Kultur etxeko arkupean
» 11:00etan Meza nagusia San Trokaz elizan
» 12:00etan bertsolariak Ferialeku plazan: Gogaikarri bertso eskola-koak, Xabier Amuriza, Garikoitz Sarriguarte eta Eñaut Uruburu San Trokaz elizan
» 12:30ean herri kirolak probalekuan eta ondoren nekazaritzako sarien banaketa.
» 16:30ean Erromeria Lotxo taldeagaz ferialeku plazan.
» 17:00etan Idi Probak
» 22:00etan Idi Probak



» **San Blas Txiki eguna** otsailaren 4an.

» 17:00etan idi probak
» 19:30ean Abadiñoako Done Zezili abesbatzak Santa Ageda koplak abestuko ditu kalerik kale.



anboto, durangaldeko asteakaria

Egin zaitez harpidedun



harpidedun egiteko, deitu 94 681 65 58 telefonora edo harpidedun@anboto.org-ra zure izen-abizen eta helbidea bidali

LEHIAKETA
ABADIÑO

» **San Blasako Argazki Txapelketa.**
Gaia: San Blasak 2010. Lanak aurkezteko epea: otsailaren 12ko 20:00ak. Errota eta Txanpota kultur etxeetan aurkeztu daitezke argazkiak.
1.saria: 400 euro.
2.saria: 250 euro.



» **Arkume errearen XXII. txapelketa izen emateko epea luzatu da: Otsailaren 11ra arte.** Interesatuak Txanpota kultur-etxera joan beharko du izena ematera. Saria: Lehenak 100 euro, bigarrenak 60 eta hirugarrenak 40 euro. Txapelketa 13an egingo da eta ondoren herri "arkume-jana" egingo da 350 bat lagunentzat.



BERRIZ

» **"Emakumeen Nazioarteko Eguneko II. Kartel Lehiaketa.**
Gaia: sexualitatea. Lanak otsailaren 16a baino lehen aurkeztu beharko dira Berrizko Udal Erregistroan. Saria: 300 euro. DBHko ikasleen artean be zabalduko da lehiaketa. Kategoria horretako saria argazki kamera digital bat izango da

MUSIKA

DURANGO

» **Bonecrusher fest 2010,** urtarrilaren 29an, 20:00etan, Plateruenean.



» **Gari "16 lore" disko berria** urtarrilaren 30ean, iluntzeko 22:00etan, Plateruenean

» **Gaztetxean kontzertuak: "Oñati Bizirik Euskal Herritik Biran"** urtarrilaren 30ean 19:30ean. Taldeak: Bitz, Drakes, Galdu Arte, Ez!, eta Klinexa eta Kaka Arrastua Kumunzulotik Behera

ELORRIO

» **Kontzertuak gaztetxean: Lor eta Zain** urtarrilaren 29an **Insolvente eta Los Huevos de Kinder** urtarrilaren 30ean

ERMUA

» **Ermua kantuan** Urtarrilaren 30ean, 12:30ean, Orbe Kardinalaren plazatik.

Antolatzailea: Euskal Birusa

» **Agate Deunaren kalejira** otsailaren 4an 18:00etan. Antolatzaila: Alboka Musika eskola

ZORNOTZA

» **Anitzak hitzak. Bunbada Sound taldeak** ikuskizuna eskainiko du urtarrilaren 29an, iluntzeko 21:00etan, Zornotza Aretoan



ZINEKLUBA

DURANGO

» **'Mal día para pescar'**, Otsailaren 4an, 20:30ean, Zugaza zinemaren.

ERMUA

» **Zine erotikoren zikloaren barruan. "Ma mère"**, otsailaren 4an, 19:00etan eta 21:30ean, Lobiano kultur gunean.



Urtarrilaren 30ean, 22:00etan

GARIK "16 LORE" ESKAINIKO DIZKIGU LAN BERRIAN

Gari urteek ematen duten ikuspegiarekin atzera begiratu du eta bere ibilbide pertsonalaren errepaso egin eta disko berria eskaini digu. "Hertzainak" taldearen eta bere ibilbideko 16 abesti hautatu, eta moldaketa harrigarriak egin ditu. Bizitza bat, akitude bat eta sentimendu bat. 16 kapitulutan aurkezten digun kontakizun gazi-gozoa zuzenean ezagutzeko aukera larunbatean Plateruenean

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

Invictus (digital)

Zuzendaria: Clint Eastwood
barikua 29: 19:00/22:00
zapateria 30: 20:00/22:30
domeka 31: 20:00/22:30
astelehena 1: 19:00/22:00
martitzena 2: 20:00



Avatar (3D) Zuzendaria:

James Cameron
zapateria 30: 16:30
domeka 31: 16:30

ELORRIO

Arriola antzokia

Mal día para pescar

Zuzendaria: Álvaro Brechner
zapateria 30: 22:30
domeka 31: 20:00
astelehena 1: 20:00



ZORNOTZA

Zornotza aretoa

Teniente corrupto

Zuzendaria: Werner Herzog
zapateria 30: 22:30
domeka 31: 20:00
astelehena 1: 20:00



Umeendako zinema

Planet 51 (euskaraz)

domeka 31: 17:30

BOTIKAK

- Barikua, 29**
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)
- Zapateria, 30**
09:00-09:00
• Gaztelumendi (F.J. Abasolo 2 - Durango)
- 09:00-13:30 (*14:00)
• Etxebarria/ Mugika/ Unamunzaga/ Sagastizabal/De Diego/ Campillo/ SanRoma/Balenciaga (Durango)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• Larrañaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - lurreta)*
- Domeka, 31**
09:00-09:00
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)
- Astelehena, 1**
09:00-09:00
• Larrañaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)
• De Diego (Inbaxurro 22 - Durango)
- Martitzena, 2**
09:00-09:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - lurreta)
- Eguaztena, 3**
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24- Durango)
- Eguena, 4**
09:00-09:00
• Unamunzaga (Murua Torre 2C - Durango)
• Eguren, Isabel (Torresolo 4 - Abadiño)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak112	UDALAK	Txanpota KE94 620 36 47
DYA94 620 28 00	Abadiño94 621 55 30	Errota KE94 466 94 16
Gurutze Gorria94 681 09 49	Atxondo94 682 10 09	Gorabide94 681 24 35
Osakidetza94 600 72 00	Berriz94 682 45 84	Alkoholiko Anonim.94 415 07 51
Ertzaintza94 466 93 00	Durango94 603 00 00	Nekazal bulegoa94 681 15 20
Suhiltzaileak112	Elorrio94 658 27 12	Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
GARRAIOAK	Garai94 681 63 93	Butanoa (UME).....94 681 08 77
Euskotren902 54 32 10	lurreta 94 620 12 00	Araztegia94 620 28 00
Durango94 681 02 32	Izurtza94 681 35 48	Foru Ogasuna.....94 681 07 42
Bizkaibus94 448 40 80	Mallabia943 17 14 61	INEM Durango94 681 12 96
Pesa902 10 12 10	Mañaria94 681 89 98	Gizarte Segurantz 94 681 49 58
Continental Auto945 286 466	Otxandio 945 45 00 20	Epaitegiak.....94 603 00 51
TAXIAK	Zaldibar94 682 70 16	KIROLDEGIAK
Abadiño946 814 470	UDALTZAINGOA	Igerilekua
Matieta606 459 988	Abadiño94 621 55 33	Astola94 620 29 29
Durango Geltokia.....946 811 001	Berriz94 682 40 36	Igerilekua
Goco Tour946 202 860	Durango94 603 00 10	Atxondo94 623 14 38
Tele Taxi944 102 121	Elorrio94 682 02 18	Berriz94 682 43 74
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026	lurreta94 620 08 88	Durango
Elorrio Geltokia946 820 040	BESTELAKOAK	(Landako).....94 621 51 30
J.L. Uriarte670 402 002	Arriola94 658 31 92	Durango
I. Estebez670 678 273	San Agustin94 603 00 21	(Tabira)94 621 51 50
M Galeano.....946 582 854	Zornotza Aretoa94 630 01 68	Elorrio94 682 10 27
lurreta946 201 565	Gazte informazioa 94 603 00 30	Zaldibar94 682 73 74
Taxi auzunea688 618 690		

EGURALDIA

- 8º BARIKUA** ☁
- Eguraldia nabarmen egingo du okerrera. Zerua erabat ilun egongo da tarteka eta zaparradak botako ditu, batez ere eguerditik aurrera. Arratsaldean ateruneak luzatu egingo dira. Elur-kota 1000 m inguruan kokatuko da.
- 9º ZAPATUA** ☁
- Aldaketa gutxi espero dugu asteburuaren hasieran. Zerua oso hodeitsu egongo da eta zaparradak botako ditu. Arratsaldean ateruneak luzatu egingo dira. Elur-kota 800 m-tik behera kokatuko da.
- 9º DOMEKA** ☁
- 7º ASTELEHENA** ☁
- 9º MARTITZENA** ☁

SUDURRA SARTZEN

Esentziak eta usain naturalak



2010eko urtarrilaren 25etik otsailaren 14ra

Ezkurdi Udal Aretoa
Ezkurdi plaza, 10
Durango

Astelehenetik ostiraera, 10:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara
Larunbat eta igandeetan ere 12:00etatik 14:00etara

Eskola-taldeen bisitetarako, eskatu ordua 946 030 030
telefono-zenbakira (Pinondo Etxea) deituta

Bisita gidatuak, astearte eta ostegunetan,
18:00etatik 19:00etara
Larunbatetan, 12:00etatik 13:00etara



DURANGO
Udala • Ayuntamiento



Obra Social
Fundación "la Caixa"

KIROLAK >



Argazkia: Ana Dominguez

Mallabia Bastidak azken urte bietan mailaz igotzea lortu du. Goizetik gaue- ra bigarren erregionaletik goren mailarako saltoa eman dute. Zenbat eta gorago, taldeak taktikoki prestatuago egoten dira eta triki-mailu gehiago dakizkitez. Mallabitarrek oraindik asko dute sakontzeko arlo horretan. Hala ere, sailkapenean hirugarren daude, Altamira bigarrenarekin berdinduta eta Ibaizabal liderrarengandik sei puntura. Gainera, atzeratutako partidu baten emaitza erabakitzeke dute oraindik.

Beraz, non dago sekretua? "Hainbat partidutan fisikoari esker gailendu gara. Aurkarietako asko beteranoak dira eta erritmoak hautsi egiten ditu. Gu

Hauspoa alde dute

freskoago iristen gara partiduen azken txanpara eta kontraerasoan min egiten dugu", azaldu du Juan Carlos Perez Mallabia Bastidako jokalaria.

Etxean ez dago kargu hartuko dienik; orain arteko sei partiduak irabazi dituzte. Kanpoan ere uzta polita batu dute; bost garaipen eta berdinketa bat. Joan zen astean 4-6 irabazi zuten Alufermarren kontra partidu zakar batean. Talde bakoitzetik bina jokalaria kanporatu zituzten (tartean aurkariaren entrenatzailea) eta kantxan ez zen giro izan. Oraindik amaitzeke duten partiduan ere izan zen iskanbilarik. Mamarigako taldekoak, epailearen lanarekin gustura ez, eta kargu hartzen hasi zitzaiz-

Taktikoki ez, baina fisikoki beste talde asko baino sendoagoa da Mallabia

kion. Azkenean, mallabitarrek 4-2 irabazten zihoazela, epaileak partidua bertan behera uztea erabaki zuen. Komiteak partidua utzi zuten tokian segitzea erabaki du. Data zehaztea falta da.

Asteburuan Elorrietaren kontra jokatuko dute. Teorian, irabazteko partidua da, nahiz Goren Mailan talde guztiak baduten bere zailtasuna. ■ J.D.

24 lurretako eta Elorrio, buruz buru

Urduliz liderra beste dimentsio batean dagoenez, Lehen Erregionaleko bigarren postuaren lehian dabilta Elorrio eta lurretako. Oraingoz, biak bolada ezinhobean daude.

25 Tabirako maila hobetu nahian

Emakumeen talde nagusia liga txukuna osatzen ari da, baina hainbat partidutan maila irregularra eman dute. Erregulartasuna lortzea dute helburu bigarren itzulian

Elorrio eta lurretako orpoz orpo dabilta goialdean

Urduliz ahaltuaren atzetik talde biak igotzeko borrokan daude



Elorriok eta lurretakok goiko postuetarako lehia polita dute lehen erregionalean. Ana Dominguez

Urduliz ahaltuaren atzetik talde biak igotzeko borrokan daude. Lehen Mailan Pablo Berasaluzek eta Aritz Beginok partidu garrantzitsua dute gaur Zornotzan Titin III.aren eta Pascualen kontra. Garaipena beharrezkoa dute. Iaz toki berean protagonista berak batu ziren eta gehien behar zutenek irabazi zuten: Titin III.ak eta Pascualek. Horrek baikor izatera garamatza. Beste detaile bat: laurak elkarren kontra izan ziren azkenengo aldian Berasaluzek eta Beginok irabazi zuten.

Elorriok garaipen garrantzitsua lortu zuen Errigoitiren kontra joan zen asteburuan (0-1). Horrela, lurretakoren estropezia baliatuta bigarren kokatu dira. Lurretakok denboraldiko hirugarren porrota jaso zuen Larrakozelain Lekeitioren kontra (1-2). Aurtengo denboraldian

Talde biak bigarren eta hirugarren daude; Artibaik bakarrik segitzen die erritmoa

Elorriok Urduliz liderra jasoko du etxean; Urdulizek orain arteko lehia denak irabazi ditu

etxetik kanpora askoz hobeto dabilta. Oraindik ez dute partidurik galdu. Etxean, aldiz, 10 puntuk ihes egin diete.

Lurretakok bigarren postua berreskuratzeko aukera du asteburuan; izan ere, Elorriok Urduliz jasoko du Eleizalden. Lurretakok Berriatuaren zelaian jokatu du. Berriatuak ez du partidurik galdu etxean: lau garaipen eta lau berdinketa.

Zalduak ezin du lorik hartu
Zalduak bana berdindu zuen Gazteluzarraren kontra eta jaitziera postuekiko aldetxo mantentzen badute ere, ezin dira deskuidatu. Etxetik kanpora ezin dute emaitza onik bildu; zortzi partidutan lau puntu besterik ez dituzte lortu. Asteburuan Lekeition jokatu du. ■ J.D.

DRT Urrezko Kopatik kanpora utzi du Hernanik

Hernanik ez zion aukerarik eman Durango Ilarduyari. 24-5 nagusitu ziren joan zen asteburuan Urrezko Kopako ligaxkara sailkatzeko azken kanporaketan. Asteburuan Vigoren kontra jokatu du durangarrek. Beheko postuetik aldentzeko partidu garrantzitsua da.

Bestalde, Elorrio esku hutsik bueltatu zen Gaztedi lideraren etxetik (20-12) Euskal Ligan. Asteburuan Santanderrren kontra arituko dira. ■ J.D.

Mikel Bilbao

• Radio Euskadiko kazetaria



Oraindik asko geratzen da

Egunotan lehen eta bigarren mailako pilota txapelketek bereganatzen dute pilota munduko arreta osoa. Lehen Mailan Pablo Berasaluzek eta Aritz Beginok partidu garrantzitsua dute gaur Zornotzan Titin III.aren eta Pascualen kontra. Garaipena beharrezkoa dute. Iaz toki berean protagonista berak batu ziren eta gehien behar zutenek irabazi zuten: Titin III.ak eta Pascualek. Horrek baikor izatera garamatza. Beste detaile bat: laurak elkarren kontra izan ziren azkenengo aldian Berasaluzek eta Beginok irabazi zuten.

Bestalde, Bigarren Mailan Durangaldeko hiru pilotari lehiatuko dira gaur Elorriok: Asier Berasaluze eta Iñaki Larrinaga, Iker Arretxe eta Ibai Zabalaren kontra. Arretxek eta Zabalak orain arteko bi neurketak irabazi dituzte. Beste bikotean Berasaluze gaixorik egon da eta Larrinaga oraindik mailara egokitze fasean dago. Orain arte jokatuak bi partiduak galdu dituzte. Txapelketak aurrera egin ahala gorantz egingo duen bikotea dela seguru nago; Asier osatzen bada Iñakirentzat bikote ezin hobea izan daiteke. Oraindik sei partidu geratzen zaizkiela da alde positiboa. Okerrena da tanteo eskasa dutela.

Bigarren Mailan Asegarek lau bikote indartsu ditu, batez ere, Saralegi eta Escuderok osatutakoa. Lehen Mailan, aldiz, Aspe indartsu dabil Irujo eta Beroizekin. Hala ere kontuz; txapelketa maratoni bat da eta ez dago lasaitzerik, baina, aldi berean, dosifikatu beharra dago. Oraindik mundu bat geratzen da.

Atxartek ozta ozta irabazi dio Ilunpe Bri

Kluban Arteko Pilota Txapelketan Atxartek -22 urtez azpiko mailan- garaipen garrantzitsua lortu zuen Ilunpe Bren kontra: 22-21. Sailkapenean bere aurretik zeuden Oberenak eta Añorgak galdu egin dute, beraz jardunaldi borobila izan da Abadiñoko klubarentzat.

Nagusietan, Ohorezko Mailan, Berriotoak irabazi egin dio Amurriori (22-16). Adiskidek eta Aurrera Saiazek galdu egin dutenez, bigarren kokatu dira. Hernani da liderra sei puntugaz. ■ J.D.

Ekimen berria, paleta goma sustatu guran

Euskal Herriko Pilota Federazioak (Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako eta Nafarroako federazioen laguntzagaz), Euskal herriko Nesken Gomazko Paleta Txapelketa antolatu du lehenengoz.

Hiru mailatan lehiatuko dira: gazteetan, lehen mailan eta bigarren mailan. Bizkaiko partidu guztiak Mallabiko pilotalekuan jokatu dituzte. Finalak Iruñeko Labritek hartuko ditu martxoaren 7an.

Bihar hasiko da txapelketa eta Mallabian hiru partidu jokatu dira (16:00etan). ■ J.D.

Jardunaldi eskasa izan zuten gure xake taldeek

Zaldi Baltzak bakarrik irabazi zuen (bigarren eta hirugarren erregionalean) klubaren arteko txapelketako hirugarren jardunaldian. Euskal Ligan Abadiñok 1,5-2,5 galdu zuen Fomento Culturalen kontra. Abadiñok 4,5 puntu ditu orain eta partidu bat jokatzeko du.

Goren Mailan Zaldi Baltzak eta Larrasoloetak galdu egin zuten. Durangoko taldea azken hirugarren dago sailkapenean 4 punturekin eta Zaldi Baltza azken aurreko 2,5 punturekin.

Rey Ardid azken sailkatuak ere 2,5 puntu ditu. Larrasoloetak mailaz igotzea zuen helburu, baina liga kaskar hasi ondoren mailari eustera bideratuko dituzte ahaleginak.

Bestalde, Euskal Ligakoak ez ezik, elurraren ondorioz atzeratutako Bizkaiko ligetako partidu guztiak ere otsailaren 13an jokatu dituzte. Beraz, azken lau jardunaldiak astebete atzeratuko dira. Ondorioz, klubaren arteko liga martxoaren 13an amaituko da. ■ J.D.



ZARATE ELEXP
E R A G I L E A K

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz

Lehen itzuli "gazi-goza" osatu du Tabirakok emakumeetan

Gorabehera asko izan dituzte errendimenduan; lesioek ere ez diete askorik lagundu



Atletico San Sebastianen kontra jokatuko dute asteburuan. A.D.

Oro har, balantze negatiboa egiterik ez badago ere, Alberto Molina entrenatzaileak onartzen duenez, "lehen itzuli gazi-goza osatu dugu". Partidu onak eta txarrak tartekatuta dituzte eta erregulartasuna falta izan zaie momentu eta partidu batzuetan: "Hala ere, badakigu zein den jarraitu beharreko bidea eta bigarren itzulian partidu gehiago irabaztea espero dugu", dio baidor Molinak.

Hala ere, Alberto Molina itxaropentsu dago: "Gora egingo dugula uste dut"

Etxean indartsu azaldu dira eta Landakon jokatutako azken lau partiduak segidan irabazi dituzte. Etxetik kanpora, aldiz, joan zen asteburuan Irlandesas azken sailkatuaren kantuan hautsi zuten bolada txarra: bost porrot zeramatzen errenkadan Durangotik urrun. Hain zuzen, gaur egun lider sendoa den Bera Beraren kantuan irabazi zuten azkenengoz kanpoan. Orduko horixe da donostiarrek liga osoan jasan duten porrot bakarra.

Dena dela, etxean eta kanpoan errendimenduari dagokio-

nez erakutsi duten aldean, aurkariak ere badute zerikusirik. Ligako indartsuenen kontra etxetik kanpora jokatzea egokitu zaie lehen itzulian (Arabako EHU, Loiola, Cafés Aitona eta Ardoi, esaterako).

Joko-antolatzaile bakarra

Lesioek asko baldintzatu dute durangarren jokoa. Bigarren jardunaldiaz geroztik joko-antolatzaile bakarragaz ari dira: Marina Maortuagaz. Izan ere, Olatz Perez taldeko beste antolatzaile orkatilatik lesionatuta dago. Joan zen astean bost bat minutu jokatu zituen, oraindik min ematen diola konturatuzeko adina.

Beraz, Maortuak darama patiduro taldeko jokoa antolatzeko pisu osoa. Arraroa da gutxienez 35 minutu jokatzen ez dituen partidua eta zaila da beti freskotasuna mantentzea.

Asteburuan Atletico San Sebastianen kontra jokatuko dute etxean. Donostiako taldeak Tabirakok baino garaipen bat gutxiago du. Beraz, arerio zuzena izango dute aurkari. ■ J.D.

Joko-antolatzaile bakarrarekin ari dira; Olatz Perez orkatila osatu ezinda dabil

Zulotik irteten hasteko puntuak behar Sasikoak

Sasikoa estu dabil Ohorezko A Mailan. Azkenengo dago sailkapenean eta garaipenak behar ditu zulotik irteten hasteko. Gorako bideari ekiteko lehenengo aukera domekan du, etxean, Sestaoren kontrako partiduan.

Sestao sailkapenaren erdian dago eta etxean baino askoz emaitza hobekak lortu ditu etxetik kanpora. Sailkapenean dituen 25 puntuetatik 17 kanpoko partiduetan eskuratu ditu.

Etxean baino etxetik kanpora askoz hobeto dabilen Sestao du arerio etzi Sasikoak

Joan zen asteburuan puntuaren bat batzeko zorian izan ziren durangarrak Castroren kantuan, baina azkenean 1-0 galdu zuten. Zorionez sailkapenean euren aurretik dauden Soloarte, Donostiako Zuzenbide eta Tecuni Bilbo taldeek ere ez zuten punturik batu. ■ J.D.

Kulturala eta Beasain, goiko postuen lehian

Durangoko Kulturalak Beasainen kontra jokatuko du bihar Tabiran. Talde biak goiko postuen borrokan dabilta. Beasain laugarren dago 39 puntuarekin eta Kulturala bosgarren puntu bakarrera. Irabazten duenak arerio zuzenari abantaila aterako dio.

Kulturalak sarritan erakutsi du aurtengo denboraldian etxean talde indartsua dela. Partidu bakarra galdu du denboraldi osoan; Santurtziren kontra (1-2). Beasain orain arte ondo moldatu da etxetik kanpora: hiru garaipen, lau berdinketa eta lau porrot. Durangarrek etxetik kanpora dituzte hurrengo lehian biak, Lagun Onak eta Baskoniaren kontra. ■ J.D.

Beasain laugarren dago eta Kulturala bosgarren puntu bakarrera

Eskualdeko hiru pilotari lehian gaur, Elorrion

Bigarren Mailako Binakako Pilota txapelketako neurketa jokatuko dute gaur Elorrion (jaialdia 20:00etan hasiko da). Durangaldeko hiru pilotari izango ditugu kantuan. Horietako bi, Asier Berasaluze eta Iñaki Larrinaga, txapelketako lehenengo garaipena lortzen saiatuko dira. Kontrario Iker Arretxe eta Ibai Zabala berriztarra izango

dituzte. Arretxek eta Zabalak partidu bi jokatu eta biak irabazi dituzte orain arte: 22-17 Retegi Bi eta Cecilioren kontra eta 22-10 Aritz Lasa eta Merinoren kontra. Berasaluzek eta Larrinagak, aldiz, jokatutako biak galdu dituzte, alde handiarekin gainera. Beraz, guztiz beharrezkoa dute garaipena gaurko neurketan. ■ J.D.

SAILKAPENAK >

Futbola / 3. maila / 4. taldea / gizonak


1- Amorebieta.....45	15- Aretxabaleta.....27
2- Real Sociedad B...44	16- Lagun Onak.....26
3- Zamudio.....40	17- Laudio.....25
4- Beasain.....39	18- Eibar.....22
5- Kulturala.....38	19- Retuerto.....21
6- Portugalete.....37	20- Salvatierra.....9
7- Gemika.....37	
8- Amurrio.....34	
9- Elgoibar.....34	
10- Basconia.....33	
11- Leioa.....30	
12- Santurtzi.....29	
13- Zalla.....28	
14- Arenas.....28	

Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / gizonak

1- Bidegintza.....11 (+64)
2- Padura.....9 (+53)
3- Seky.es.....8 (+22)
4- Tabirako.....7 (+14)
5- San Ignacio.....7 (-41)
6- Baskonia Fund.....7 (+45)
7- Zornotza.....6 (+8)
8- Easo.....6 (+20)
9- Bide Bide.....4 (-108)
10- Legarzia.....4 (-77)

Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / emakumeak

1- Bera Bera15 (+283)
2- Gemika12 (+194)
3- Ardoi12 (+282)
4- Cafés Aitona . .10 (+83)
5- Las Gaunas . . .10 (+4)
6- Deusto-Loiola .8 (+31)
7- Elexalde8 (-14)
8- Arabako EHU .8 (+12)
9- Tabirako8 (+110)
10- Obenasa8 (-78)
11- Abaroa . . .7 (+64)
12- Atletico SN .7 (-8)
13- Getxo . . .6 (-118)
14- Artieda . . .3 (-189)
15- San Ignacio .2 (-302)
16- Irlandesas .0 (-364)



Durangoko Kulturalak 35 gol sartu eta 25 jaso ditu aurtengo denboraldian

Agenda

FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Kulturala - Beasain

Zapatuan, 17:00etan,

Tabiran

OHOREZKO MAILA

Berriz - Bermeo

Domekan, 11:30ean,

Berrizburun

LEHEN ERREGIONALA

Elorrio - Urduliz

Zapatuan, 16:00etan,

Eleizalden

HIRUGARREN ERREGIONALA

Extremeno - Lekeitio B

Domekan, 18:00etan, Tabiran

SASKIBALOA

LEHEN MAILA (emakumeak)

Tabirako - Atletico SN

Zapatuan, 19:00etan,

Landako kirolegian

LEHEN ERREGIONALA

Zaldia - Tabirako

Zapatuan, 18:30ean,

Zaldibarko kirolegian

ARETO FUTBOLA

EUSKAL LIGA

Kurutziaga - Santurtzi

Zapatuan, 18:00etan,

Landako kirolegian

LEHEN ERREGIONALA

Abadiño Gaztetxe -

Atxure Bakio

Zapatuan, 15:10ean,

Elorrioko kirolegian

Elorrioko B -

Abadiño Lagun

Zapatuan, 18:00etan,

Elorrioko kirolegian

BIGARREN ERREGIONALA

Kurutziaga B -

Lagun Onak B

Domekan, 12:00etan,

Landako kirolegian

ERRUGBIA

OHOREZKO B MAILA

Durango Ilarduya -

Vigo

Domekan, 11:30ean, Arripau-

suetan

AIZKORA

URREZKO AIZKOLARIEN

BINAKAKO TXAPELKETA

Zilarrezko maila

Xabier Garita-Julen

Mendieta / Juan Jose

Erdozia-Eneko Saralegi

Urrezko maila

J.J. Lopez Azpilikueta-

Ugaitz Mugerza / Aitzol

Atutxa-Jon Rekondo

FRONTENISA

MALLABIKO II. TXAPELKETA

Izena emateko epea: otsaila-

ren 22ra arte. Txapelketa

martxoan hasiko da.

Tlf: 669 028 718

AMALURRA >



Mancomunidad de la Merindad de Durango
Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa



Agenda 21ek proiektu eta ekimenekin aurrera jarraitzen du

Aurten Abadiñoko Agenda 21en proiektuen artean Zaharren Egoitza urbanizatzea dago

Telazko poltsak erabiliz plastikoa fabrikatzen eta desagerrarazten sortzen diren CO2 isurketak murrizten dira

Abadiñon Agenda 21eko taldeak analisia egin du aurrera eramandako proiektu eta helburu berrien inguruan

Abadiñon Agenda 21eko taldeak batzarra egin du garapen iraunkorraren aldeko proiektuen inguruan. Gauzatu diren eta egin barik gelditu diren proiektuen analisia egin dute eta balorazioa positiboa izan da, 2009rako zituzten proiektu gehienak bete baitituzte. Denbora faltagatik egin barik gelditu da esaterako, Gazteluko errepidea konpontzea, baina berehala hasiko dira horrekin.

Egindako proiektuen artean, Abadiñoko alkateak, Jose Luis Navarrok, Abadiñoko hiru eskoletan energia aurrezteko proiektuen barruan pertsianak, leihoak, atek eta erradiadoreak aldatu direla aipatu du.

Horrez gain, Matienan kaleen saneamendua egin dute, kaleak konpondu dituzte eta zebra bideei altuera igo diete.

Bestalde, Durango-Matiena-Zelaieta errepidean bizikletentzako bidea egin dute.

2010erako proiektuen artean Abadiñoko zaharren egoitzako urbanizazioa egiteko asmoa dago.

Telazko poltsak plastikoen ordez

Durangoko Agenda 21ek sortutako ekimena izan zen Durangoko etxe guztietan telazko poltsak banatzea biztanleak kontzientziatzeko asmotan. Guztira, 10.400 telazko poltsa banatu egingo dira durangarrek erosketak egiterakoan telazko poltsa hauek erabiltzeko plastikozko poltsak erabili beharrean.

Helburua ez da bakarrik plastikozko poltsen kontsumoa murriztea; plastikoa fabrikatzen eta desagerrarazten sortzen

diren CO2 isurketak gutxitzea lortu nahi da eta ekimen horrek horretan laguntzen du.

Durangoko Udalaren asmoa da, hemendik eta bost urtera, CO2 isurketak %2 baino gutxiago igotzea 2006ko isurketarekiko, urte hori hartzen baitute erreferentzia moduan.

Telazko poltsak erabiliz berrerabili eta birziklatu egiten da eta gainera CO2a murriztu.

Telazko poltsetan, gainera, aholkuak ematen dituzte zaborra behar den moduan gestioantzeko. Gogoratzen digu, papera eta kartoia edukiontzi urdinean sartu behar dela, beirazko botilak edukiontzi berdean sartu behar direla, plastiko eta metalazko ontziak, berriz, edukiontzi horian eta etxeko olio ere erreziklatu daitekeela edukiontzi laranjan.

GAURSAKO 8 IBILGAILU IKUSGARRIENAK AURKEZTEN DIZKIZUEGU



**CLIO
EMOTION**
1.5 dCi 85cv (2007)

10.600* €



**MÉGANE
DYNAMIQUE**
1.5 dCi 105cv 5P (2007)

11.800* €



TRAFIC COMBI
1.9 dCi 100cv 9 pl. (2007)

14.900* €



**MÉGANE
DYNAMIQUE**
1.5 dCi 105cv 5P (2009)

15.850* €



**LAGUNA
EXPRESSION**
2.0 dCi 130cv (2008)

16.800* €



**LAGUNA
GRAND TOUR
EXPRESSION**
2.0 dCi 130cv (2008)

17.900* €



SEAT LEON
1.9 TDi REFERENCE
105cv 5P (2007)

10.800* €



OPEL VECTRA
1.9 dCi 120cv (2008)

15.800* €

* P.S.P. transferentzi gastuak barne. 28/02/10-rarte edo ta izakinen amaierarte baliozko ezkontza. Ikusgarritako eta ezkontitako bertsioak desberdinak izan daitezke.

ZUK DENA NAHI DUZULAKO

**RENAULT
OCASIÓN**



GAURSA
ARRIANDI, 12. IURRETA. TELEFONOA: 94 620 33 00. www.gaursa.com



IRAGARKIAK

LANA

- Eskakerak
- Eskaintzak
- ETXEBIZITZAK**
- Salgai
- Errentan eman
- Errentan hartu
- Pisua konpartitu
- IRAKASKUNTZA**
- Klaseak hartu
- Klaseak eman
- MOTORRA**
- Salgai
- Erosi
- LOKALAK**
- Errentan eman
- Errentan hartu
- ANIMALIAK**
- Salgai
- Erosi
- BESTEAK**
- Berba egin
- Salgai



Osteguneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak ostiral horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

DOAKO IRAGARKIAK (partikularrak):

- Bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: anboto@anboto.org edo
- Deitu 94 681 65 58 telefonora

ORDAINDUTAKO IRAGARKIAK (ez profesionalak):

Iragarki laburretatik bereizitua eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94 621 79 02 telefonoan.

Durango. Etxea salgai Landakon, Txibitenan. Sukaldea, 3 logela, saloia, bi komun eta bi balkoi handi ditu. Seigarren solairuan. Ondo zainduta. Garaje itxiarekin. Tel.: 94 616 62 97

Elorrio. Baserri bateko etxe berriztatua alokatzen da. Estreintzeko. 3 logela, egongela, sukaldea, jangela, komuna eta atartea. 150 m2 solairu bakarrean. Tel.: 699 846 219

Abadiño. Etxebizitza salgai Muntzaratz auzoan. 3 logela, egongela handia, 2 komun, sukaldea, trasteleku txiki bi etxean eta ganbara. Berriztatua. Altxariek, nahi izanez gero. Lokal komertziala aukeran (kotxe birentzako lekua). Tel.: 667 882 338

Pisua salgai Errioxan, Casolareinan. 20 m2-ko txokoarekin. Tel.: 615 789 859

ERRENTAN EMAN

Durango. Logela bat alokatzen da Alde Zaharrean, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Tel.: 607 086 090 (Ane)

KONPARTITU

Durango. Zonalde onean kokatutako pisua osotzeko pertsona behar da. Tel.: 695 780 944

Durango. Konpartitzeko pisu bila nabil Durango edo inguruan. Tel.: 691 354 031

MOTORRA

SALGAI

Ford Escort Turbo Diesel salgai. Balazta berriekin eta martxan ipintzeko berogailu berriekin. Amortiguadoreak ere berriak. IAT pasatu berri. 154.000 km. 2.100 eurotan. Erabilgarri dago, egoera onean. Tel.: 94 621 82 57

Nissan Micra salgai. Egoera onean eta oso merke: 950 euro. Tel.: 610 415 511

Peugeot 307 1.6 salgai. Gasolina. 2005eko azarokoa, 36.000 km-rekin. IAT 2011ra arte. Klimatizagailuarekin eta oso egoera onean. Garajejan gordetakoa. 8.000 euro. Tel.: 677 333 167 (Iratxe)

Lan Rover Defender 2.5 TD salgai. 2001ekoa. 125.000 km. Enbrage berriarekin. Egoera onean. 9.500 euro, negoziagarri. Tel.: 696 781 189

Renault Clio 1.9 D salgai. 2000. urtekkoa. 170.000 km. Kolore urdinekoa. Distribuzioa eginda. Gurpil berriekin. Egoera onean. 2.500 euro. Tel.: 696 781 189

Saab 93 1.9 Tdi salgai. Beltza, familiarra. 2006ko urrikoa. Bermea 2010eko urria arte. Tel.: 660 467 729

LOKALAK

SALGAI

Ile-apaindegia sagai. 19 m2 ditu. Tel.: 626 864 971

Durango. Garaje itxia salgai. Alde zaharretik gertu. Prezio onean. Tel.: 665 729 936

ERRENTAN EMAN

Elorrio. Garaje bi alokagai Goieta kalean. Tel.: 657 793 993

Durango. Haizetarako garajea alokatzen dut Ibaizabal auzoan. Tel.: 94 681 89 47 edo 636 046 318

Durango. Bulego bat alokagai Plateruen plazan. 37 m2 ditu, eta jantzita dago. Dena prestatuta. Gela handi bat eta beste bi normalak. 750 euro hilean. Tel.: 656 780 215

Durango. Garaje itxia alokagai Alde Zaharretik gertu. Tel.: 665 729 936

IRAKASKUNTZA

EMAN

Elorrio. Ekonomian lizentziaduna eta 8 urteko esperientziadun neska euskaldunak klase partikularrak ematen ditu: DBH, Baxilergoa, LH... Tel.: 616 802 932 (Oihane)

HARTU

Matematika irakaslea behar da etxean klase partikularrak emateko. 3. DBH. Tel.: 605 767 258

ANIMALIAK

SALGAI

Txakurkumeak salgai. Bost pitbull. 200 euro bakoitza (Negoziagarri). Tel.: 677 850 585

Etxeko oilaskoak saltzen dira. 2-3 kilokoak. Zuriak 5 euro kilo, eta gorriak 6 euro kilo. Tel.: 655 998 402

Kanario horiak saltzen ditut. Tel.: 689 586 054

TOPATU

Katua topatu dogu Elorrioren, zuria eta marroi argi kolorekoa. Zurea bada, deitu. Tel.: 615 764 273

BESTEAK

SALGAI

Ume txiki batendako bizikleta salgai. 3 urteko ume batentzako gutxi gora behera. 14 pulgadakoa, 4 erruberaduna, kolore gorrikoa. 40euro. Tel.: 615 79 29 71

Egongelarako altzaria salgai. Egoera oso onean. Luzera 3,34 m, altuera 2,20 m eta zabalera 40 zm. Tel.: 685 769 503

Garbigailua salgai. Berria da. Berme barruan. Erdi prezioan. Tel.: 695 728 383

Akazia taketak saltzen dira. Neurri guztietakoak eta eskuz eginda. Landa, mendi edo mahastientzako. Tel.: 619 088 233

Wii kontsola berria salgai. Wii Sports joko eta bigarren mandoa opari. 160 euro. Tel.: 686 425 295

Saillish Vibrant Neoprenoa salgai. Luzea eta berria da. Gizonezkoen S neurrikoa (165-178zm, 68-78 Kg). Tel.: 665 714 783

LANA

ESKAERAak

Matienan tabernaria behar da jornada erdirako. Esperientzia badauka, hobe. Tel.: 94 620 37 62

Osasun arloko produktuen banaketan lan egiteko pertsona bat behar du. Beharrezkoa da ekimen eta komunikazio gaitasuna izatea eta gida-baimena izatea. Balaratuko da: osasun arloko aformazioa, antzeko lanetan esperientzia eta trebakuntza arloko esperientzia. Bidali CVak urtarrilaren 22a baino lehen hona: info.ksegur@gmail.com

Durango bizi den emakume bat behar da umea zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 657 772 050

Zornotza. Klinikako teknikari laguntzailea behar da nagusien erresidentzia batean asteburuetan lan egiteko. Derrigorra da formazioa edo esperientzia izatea eta kotxe propioa izatea. Erreferentzia: 67. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

Durango. Merkataritzako agentea behar da bezeroak lortu eta harremanetarako. Derrigorra da esperientzia izatea komertzial moduan eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 128. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

Abadiño. Ile apaintzailea behar da postuak eskatzen dituen lanak betetzeko: orraztu, moztu, depilatu... Beharrezkoa da: ile-apaintzaile bezala urtebeteko esperientzia izatea, pertsona arduratsua eta inziatibaduna izatea eta Durangaldean bizitzea. Hasieran 3-4 hilabeterako, eta luzatzeko aukera. Erreferentzia: 315. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

Durango. Kontabilitateko administraria behar da deiak jasotzeko eta ordainketen gestioa eta kontabilitatea

eramateko. Beharrezkoa: LHII administrazio ikasketak edukitzea, kontabilitatean ezagutza izatea, %33ko urritasuna izatea, kotxea edukitzea euskara jakitea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 364. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

Iurreta. Delineatzailea behar da, telefonia mugikorreko estazioen proiektuen garapenerako. Derrigorra da Proiektuen garapenerako tenikoen goi mailako titulua izatea, Autocad edota Microstation menperatzea, Word erabiltzen jakitea eta Durangaldean bizitzea. Lanaldi osoa. 12 hilabeterako kontratu ebentuala. Erreferentzia: 526. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

Durango. Merkataritza agentea behar da aseguruaren informazioa eta salmentarako. Derrigorra da heziketa ertaina izatea, ordutegi malgua izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.455. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

ESKAINTZAK

Neska gazte euskalduna arratsaldeen umeak zaintzeko eta beraien ikasketekin laguntzeko eskaintzen da. Tel.: 676 259 100

Haur Hezkuntza ikasten ari den neska euskaldun gaztea, umeak zaintzeko prest (kotxea daukat) Tel.: 626 196 885

Emakume arduratsua orduka lan egiteko prest dago: umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko, etxeak garbitzeko eta antzekoetarako. Tel.: 670 674 641

Elorrioko neska euskalduna goizetan, 11:00etara bitartean, umeak eskolara eramane edo zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. Tel.: 600 883 213

Neska euskalduna edozein lan egiteko prest, nagusiak zaindu zein etxeko lanak egiteko, adibidez. Edozein ordutegitan. esperientzia handikoa. Tel.: 607 086 090 (Ane)

Mutil bat asteburuetan tabernan lan egiteko prest. Esperientzia daukat. Tel.: 678 313 503

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Durango. Pisua salgai Andra Marin. 72 m2. Logela bi, egongela, sukaldea eta komuna. Pisu altua, 40 m2ko terrazarekin. 240.000 euro. Tel.: 696 255 083 (15:30etik aurrera)

Elorrio. Pisu ederra salgai. Tel.: 639 020 581

Zaldibar. Pisua salgai 75m2. 3 gela, egongela eta ganbara. Prezioa: 170.000 euro Tel.: 655 739 792

Otxandio. Pisua salgai. Ikuspegi zoragarria Anboto aldera. 90m2 erabilgarri. 4 logela, egongela, sukaldea, komuna, trasteleku eta balkoia. Tasatutako prezioan. Tel.: 675 905 227

Mallabia. Baserria salgai toki polit batean. Tel.: 655 702 647

Elorrio. Pisu eder bat salgai. Auzoa etorbidean. Tel.: 639 020 581

Durango. Pisu bat salgai Madalena auzoan. Guztiz berriztatua, duela 5 urte. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Oso eguzkitsua. Guztiz jantzita. Tel.: 655 709 659

Durango. Pisua sailgai erdialdean. 80 m2 ditu. Bi logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Oso argitsua. 12 urte ditu. Tel.: 656 711 625 (Mario)



Autorako aulkia salgai. Romer Isolix duo plus. 2 urtekoa. Berri-berria. I taldekoa (9-18 Kg). Segurtasun uhalarekin edota isofixagaz lotzeko. 175 euro. Tel.: 646 740 643

Bibolina salgai. 1/2 -eko neurrikoa. Funda, arku, resina eta ordeko sokak. Egoera onean. 40 eurotan. Tel.: 637 292 465

Telefono mugikorra salgai. LG markakoa. Kargadorearekin. Tel.: 689 847 603 (Nerea)

EROSI

lurreta. Landa bat erosi edo errentan hartzeko prest nago. Tel.: 626 156 817

Kotxerako umeen segurtasunerako aulkia (1,2,3 taldekoa) eta jaioberrientzako moisesa erosiko nituzke. Tel.: 650 573 607

Bikiak paseatzeko aulkitxo erosi gura dut. Tel.: 650 573 607

BEREZIAK

Indiara joateko lagun baten bila nabil. Apiril inguruan. Tel.: 695 701 172

Gizon bat emakume bila dabil, 42 urte ditut. E-mail: virgicre@gmail.com

Biodantza ikastaroa eskaintzen dut barikuetan Elorriko Lurdes ikastetxean, 19:00etatik 21:00etara. Izen emateko: Tel.: 626 661 292 (Mentxu)

Txakur portaeran aditua. Txakurrari laguntzeko bide onena. Turid Rugasen eskolako eta PDTE Europako elkarteko kidea. Tel.: 649 402 296 edo 649 402 290

Durango. Mendizabal auzunean txoko bat sortzeko jendea behar da. Interesatuak deitu hona: Tel.: 605 711 331 edo 630 839 325

Afrikar trentzak eta beste hainbat orrazkera egiten ditut. Tel.: 676 009 302. Dikson.

Txakur hezitzailea. Eusko Jaurlaritzan erregistratua. Hainbat zerbitzu eskaintzen ditut. Galdetu arazo barik. Tel.: 656 791 027

45-50 adin tarteko lagun bila nabil, arratsaldero ibilaldiak egiteko txakurrarekin eta abar. Tel.: 636 847 262

Poltsikoko egutegiak badituzu, edo bildumak egiten badituzu deitu zenbaki honetara. Tel.: 665 718 061

Atxondo. Karabanak gordetzeko zerbitzua. 900 m2-ko lokala. Tel.: 618 608 908



lurretako Renault kontzesionarioak harrerako telefonista behar du. Beharrezko ezaugarriak: Erdi mailako prestakuntza, euskaraz ondo jakitea, ingelesa eta frantsesa, harremanetarako jarrera ona, komertzial jarrera

Interesa dutenek bidali ditzatela kurrikuluma eta argazkia, "Telefonista" erreferentzia jarriaz : **GAURSA AUTOAK S.A.** Arriandi 12 48215 lurreta

INMOBILIARIAK

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 - bajo - Tel. y Fax: 94 681 64 23
48200 DURANGO / Bizkaia

ETXEBIZITZA BERRIAK

- Andra-Mari: Apartamento berriak salgai.
- Zaldibar: Eraikitzen dauden etxebizitzak salgai.
- Abadiño: Txalet bifamiliarra lur eremuarekin salgai.
- Atxondo: Adosatua lursailarekin salgai.
- Erretentxu: Salgai. Adosatua eraikitzen.
- Otxandion: Adosatua. Eraikuntza berriak.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Anbrozio Meabe: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 logela eta komuna. Ganbara.
- Andra Mari: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 4 logela, 2 komun, egongelatxo. (135 m2)
- Antso Estegiz: Halla, egongela, sukaldea, 4 logela, komuna, bainugela, balkoia eta ganbara.
- Aramotz: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela, komuna eta balkoia.
- Arriluzea: Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna. Balkoia eta atikoa.
- Artzetagan: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna.
- Astarloa: Halla, egongela, sukaldea, 4 logela eta komuna. Terraza.
- Barrenkale: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna.
- Monteideo: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 5 logela eta 3 komun. Terraza eta ganbara. (150 m2)
- Elorrio: Halla, sukaldea, balkoia, 3 logela, egongela eta komuna. Trasteleku eta garajea.
- Ermodo: Halla, egongela, sukalde-jantokia, 2 logela, 2 komun.
- Ezkurdi: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun.
- Juan Antonio Abasolo: Halla, sukaldea, 3 logela, egongela eta komuna. Balkoia.
- Gasteiz bidean: Halla, egongela, 3 logela, sukaldea eta komuna. Despentsa eta balkoia. Garajea aukeran.
- Goienkalen: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, komuna eta ganbara.
- Iparragirre: Duplexa. Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela, 2 komun eta terraza. 2 kotxerentzako garajea eta trasteleku.
- Juan de Itziar: Halla, egongela, sukaldea, 2/3 logela eta komuna. 2 despentsa/trasteleku eta sotoa.
- Kalebarria: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- Kalebarria: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. (Guztiz barriztuta)
- Kirikiño: Halla, 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna.
- Komentu kalea: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 2 logela horma-armairuekin eta komuna. Ganbara. (Guztiz barriztuta eta erdi jantzia)
- Komentu kalea: Halla, sukaldea, egongela- jantokia, 4 logela eta komuna. Ganbara.
- Laubideta: Halla, sukalde-jantokia, egongela, 2 logela eta komuna. Terraza.
- Mikeldi: Halla, egongela, sukaldea, logela eta balkoia.

ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorbidea, 10 48200 DURANGO
Tel./Faxa:94 681 66 66 inmoduranguesado@gmail.com
www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZA SALGAI

- Askatasun Etorbidean: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.
- Logela bakarra garajea eta trastelekuarekin 200.000+ BEZ
- 2 logela garajea eta trastelekuarekin 233.000+ BEZ
- 3 logela garajea eta trastelekuarekin 350.000+ BEZ
- Tabira: Luxuko etxebizitza berrien promozioa. Logela bakarra ganbararekin.
- Pagasarri kalea: Azkeneko 3 etxebizitza salgai. Eraiki berriak. 2 eta 3 logela.
- Ezkurdi: 130 m2. 4 logela. Garajea. Handia. Orientazio ona.
- Askatasun Etorbidea: 123 m2. 4 logela. Garajea, trasteleku eta ganbara. Altuera ona. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
- Fray Juan de Zumarraga: 108 m2. 4 logela. Altuera ona.
- Murueta Torre: 120 m2. 4 logela. Garajea eta trasteleku. Balkoia.
- Juan de Itziar: 4 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Bizitzen sartzeko moduan.
- Herriko Gudarien kalea: 100 m2. 3 logela. Garaje itxia. Balkoi handia.
- Monago Torre: 130 m2. 3 logela. Garajea, trasteleku eta ganbara.
- Ermodo: Erdi berria. 90 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Balkoia.
- Askatasun Etorbidea: Duplexa. 110 m2. 3 logela. Garajea eta trasteleku.
- Murueta Torre: 90 m2. 3 logela. Garajea, trasteleku eta ganbara.
- San Ignazio: 104 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Erdi berria. Altuera ona. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
- Pagasarri kalea: 94 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Erdi berria. Etxe osoak kanpora ematen du.
- Txibitena: 103 m2. 3 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea eta trasteleku.
- Iparragirre: 80 m2. 3 logela. Guztiz berriztatua. Altuera ona.
- Antso Eztegiz: 97 m2. 3 logela. Ganbara. Berriztatua.
- San Frantzisko: 75 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 2 balkoi.
- Astepe: 3 logela. Garajea eta trasteleku. Etxe osoak kanpora ematen du. Guztiz berriztatua.
- Mendizabal: 108 m2. 3 logela, egongela eta sukaldea. Garaje itxia 2 kotxerentzako eta ganbara.
- Mendizabal: 63 m2. 2 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Ganbara.
- Fray Juan de Zumarraga: 75 m2. Duplexa. 2 logela. Garajea eta trasteleku.
- Askatasun - Oñiturri (Ezkurdi): Erdi berria. 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Ganbara.
- Landako - Murueta Torre: 2 logela. Garajea eta ganbara. Balkoia.
- Andra Mari: 30 m2ko terraza. 2 logela. Berriztatua.

ETXETXO
C. INMOBILIARIA
Barrakalea, 15 - bajo - Tel. y Fax: 94 681 64 23
48200 DURANGO / Bizkaia

ERAIKUNTZA BERRIAK

- Zaldibarren: 2, 3 eta logela bakarreko etxebizitzak. Etxebizitzak garajearekin eta trastelekuarekin. Guztiz jantziak. 138.000 €-tik aurrera.
- Tabira: Berriak. Berehalako banaketa. 192.000 €.
- Durango: ETXEBIZITZA BERRIAK SALGAI. Terrazarekin. 1, 2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Murueta Torre: 90 m2. 3 logela. Ganbara eta garajea. 315.000 €.
- Monteideo: 90 m2. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta 2 garaje, bata itxia.
- Erretentxu: 85 m2. 3 logela. Ganbara.
- Plateruen plaza: 75 m2. 2 logela. Trasteleku eta garajea. Terrazarekin.
- Andra Mari: Apartamentua. Guztiz jantzia. 162.000 €
- San Fausto: 2. solairua. 143.000 €.
- Durango: Bizitzen sartzeko moduan. 2 logela eta egongela. 156.300 € (26 mill.)
- Urkiagatorre kalean: 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Trasteleku. 179.000 €.
- Aramotz: 3 logela, egongela. 202.500 €.
- Franzisko Ibarra: 90 m2. Ganbara eta garajea. 324.600 € (54 mill.)
- Oñiturri: 77 m2. 2 logela, egongela eta 2 komun. Ganbara. 291.500 € (48,5 mill.)
- Madalena: 90 m2. 3 logela. Eguzkitsua.
- Askatasun Etorbidea: 3 logela eta 2 komun. Ganbara. Terraza. 279.500 €.
- San Ignazio: 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. 306.500 € (51 mill.)
- Ermodo: 100 m2. 3 logela eta 2 komun. Garajea.
- Astxiki kalean: Estreinatzeko. 2 logela. Terraza. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua.
- Pinondon (Tabira): 3 logela eta 3 komun. 2 terraza.
- Tabira / Arriluzea: Duplexa. Erdi berria. Garajea.
- Tabira: Apartamentua. 60 m2. Terraza. Ganbara.
- Plateruen Plaza: Berria. Atikoa. Terraza. 2 logela.
- Artzetagan kalean: Apartamentu berria garajea eta trastelekuarekin. Bizitzen sartzeko moduan.
- Mendizabalen: 2 logela eta 2 komun. Garaje itxia eta ganbara. Erdi berria.
- Durango: Txaleta. Estreinatzeko. Lorategiarekin. IURRETA
- Uralde: 3 logela. 188.800 €.
- Zubiaurre: 3 logela. Guztiz jantzia. 210.000 €.
- Bidebarrieta: 70 m2. 3 logela. Terraza. Igogailua.
- Orozketa: Baserria. Guztiz berria. 3 solairu.

ABADIÑO

- Andra Mari: 2 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. 235.600 € (39,2 mill.)
- Fera Leku: 90 m2. 3 logela eta egongela.
- Zeletabe: 100 m2. 3 logela eta 2 komun. Garajea.
- Matiena: 3 logela eta egongela. 180.300 €.
- Matiena: Laubideta kalea. Apartamentua. Garaje aeta trasteleku handia.
- Abadiño: Txaleta. Bifamiliarra. Lursailarekin.

Amboto
San Agustinakale, 4 - 1 Eak. DURANGO
TE: 94 681 35 62. email: amboto@euskalnet.net

ETXEBIZITZA SALGAI

DURANGO

- Erdialdea: Apartamentu berriak. Logela bat edo bikoak eta sukaldea jantzia. 172.000 €-tik hasita. Lehen mailako materialak. %100eko finantzaketa.
- Apartamentu berriak eraikitzen. 700 € hilero.
- Askatasun Etorb.: Eraiki berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak
- Alluitz: 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiarekin, egongela eta terraza. Garaje itxia. Estreinatzeko. Etxe osoak kanpora ematen du.
- Fray Juan de Zumarraga: 4 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea terrazarekin eta 2 komun. Orientazio ona.
- Murueta Torre: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela terrazarekin. Ganbara, trasteleku eta garajea. Prezio interesgarria.
- Andra Mari: 110 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Leku onean.
- Durango: Eraiki berria. 2 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin, egongela eta garaje itxia. Lehen mailako materialak.
- Tabira: Eraikuntza berria. Logela bakarreko apartamentua. Sukalde jantokia, komuna eta eskegitokia.
- San Inazio Auzunea: Berriztatua berria. 3 logela, (logela printzipala komuna eta jantzigelarekin), 2 komun, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Aire girotua. Ganbara eta garajea.
- Pedro Pablo Astarloa: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea.
- San Fausto: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Prezio interesgarria.
- Intxaurrondo: Apartamentua. Logela, komuna, sukalde-egongela jantokia, eskegitokia eta trasteleku.
- Barrenkale: AZKENEKO DUPLExA. Eraiki berriak.
- Herriko Gudarien kalea: 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 2 terraza eta garaje itxia.
- Astarloa: 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, eta komuna. Ganbara.

IURRETA

- 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Igogailua. Gas naturaleko berogailua. Prezio interesgarria.

MATIENA-ABADIÑO

- Txinurrisol: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea balkoiarekin. Prezio interesgarria.

JAKA


- Apartamentua. 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje aeta trasteleku. Estreinatzeko.

TXALETAK SALGAI ABADIÑO

- Mendiola. Bifamiliarra. Eraiki berria. Estreinatzeko. Informazio pertsonalizatua.

DENPORAPASAK >

HITZ GEZIDUNAK >

	Bielorruasiak o hiria	Kororko	Inausteko guraize modukoa
	Fruitu mota	Zomorro	
	Frantziako ibaia		
	Erromako hizkuntza		
Itsu aurrekoa	Bizkaiko herria		
*Eskualdeko dorretxea	Zuberotar		
Pipi		Euskal fonema	
Kuboaren formakoak		Oiongo	
... egin, obeditu		Bizkaieraz, iratzea	
Aita eta ama		Multzo	
			lodoaren ikurra
			Daukate
Harrapa ezak!	Koartangok o auzoa		
Gaiztotu	Areago		
			Atzizkia
Narras, zikin			
Karez eginko orea			

SUDOKU >

1

	7		4	8	6	1
	3	5				
		1	9	6	2	5
7			3			8
	6			1	4	3
1			8	7		9
2	1		5	3	9	
	4	8	7			2
	9				5	1

2

			5			8
			8			1
9	7					
8	3	2	7			
7			3		6	
				1	3	4
			4	9		5
	5	1				
6	4					1

6	4	9	7	5	2	8	3	1
2	5	1	3	6	8	7	4	9
3	7	8	1	4	9	2	5	6
5	9	2	6	8	1	3	7	4
8	6	3	2	7	4	1	9	5
9	8	7	4	1	3	5	6	2
4	3	8	2	6	9	1	7	5
1	2	6	5	9	7	4	8	3

3

3	9	7	8	2	4	5	1	6
5	4	8	7	1	6	2	3	9
2	1	6	5	3	9	7	8	4
1	2	3	4	8	7	6	9	5
8	6	9	2	5	1	4	7	3
7	5	4	6	9	3	1	2	8
4	8	1	9	6	2	3	5	7
6	3	5	1	7	8	9	4	2
9	7	2	3	4	5	8	6	1

HOROSKOPOA >

Aries
marxoak 21 - apirilak 20
Aste osoa lanez lepo aritu zara, gelditu barik. Aprobetxatu asteburua pilak berriz kargatzeko, merezita duzu eta deskantsua.

Taurus
apirilak 21 - maiatzak 20
Aspaldi honetan zoriontsu zabilza eta ingurukoak ere pozik zu horrela ikusita. Jarrera horrekin jarraitu.

Gemini
maiatzak 21 - ekainak 20
Zu bai zu ausarta, ez zara erraz beldurtzen den horietakoa, beraz, dituzun erronkei aurre egiteko arazorik ez duzu izango.

Cancer
ekainak 21 - uztailak 20
Pertsona alaia zara, baina azken aspaldian esaten zaizun gutzia beti txarto hartzen duzu. Irribarre gehiagotan egin beharko zenuke.

Leo
uztailak 21 - abuztuak 23
Ondoan duzun pertsona gehiago zaindu beharko zenuke, zugarik dana amaten du-eta. Zuk aldiz, batzuetan jaramonik ere ez.

Virgo
abuztuak 24 - irailak 23
Astea maldan gora joan zaizu, baina tontorrera iritsi zara. Orain egindakoaz gozatzea besterik ez zaizu geratzen.

Libra
irailak 24 - urriak 23
Noiztik kirola egin gabe? Behar den gauza bakarra gogoa eta denbora izatea da; saiatuz gero ziur lortuko duzula.

Scorpius
urriak 24 - azaroak 23
Imaginazioa martxan jarri beharra daukazu, nahi duzun pertsona horrek ikusi zaitzan. Ez utzi denpora pasatzen, berandu izango da-eta.

Sagittarius
azaroak 24 - abenduak 23
Lehenengo leku berean zaude, baina ez zara lehenengo bera; beste prespektiba bat duzu. Aprobetxatu hori.

Capricornus
abenduak 24 - urtarrilak 20
Ez etsi, zuk hori eta gehiago egin dezakezu eta. Zuk sinistea besterik ez da falta eta horrela zure helburuak lortuko dituzu.

Aquarius
urtarrilak 21 - otsailak 18
Ezin pertsona hori burutik kendu? Ausartu eta hitz egin berarekin, agian bera ere zurekin hitz egiteko gogoz dabil-eta.

Piscis
otsailak 19 - martxoak 20
Haizeak nondik jo horrela ibiltzen zara, gaur hemen bihar han, baina gelditu eta pentsatzea ondo dator.

ZORION AGURRAK >

agurrak: zorionak@anboto.org-ra Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta



Hodei Puente Zubillaga abadiñarrak urtarrilaren 30ean 7 urte egingo ditu. Musu handi bat familia osoaren partez.

Peio Arresek otsailaren 4an hamar urte egingo ditu. Pilotari, futbolari... kirolari, jarraitu orain bezain alai eta zoriontsu izaten.

Bikote honek urrezko ezkontzak ospatuko ditu zapatuan, urtarrilaren 30ean. Zorionak **Maria Angeles** eta **Damian**! Orain bezain zoriontsu izan beste 50 urtean. Muxu handi bat Jose Luis eta Izaskunen partez. Ondo pasa!

Zelako ondo pasatu genuen izeko eta osabaren ezkontzan. Gainera, eguna ondo amaitzeko dena zuri-zuri jarri zen. Hurrengo ospakizuna Iratiren jaiotza. Mosu handi-handi bat bioi!



Neskabila hau **Garazi** da. Nire moduan, Elortza Mendiburu, ze nire ahizpa da. Joan zen eguenean etorri zen gurera. Txikitxo da eta ez daki euskaraz.




Aitorrek hiru urte egingo ditu otsailaren 6an. Zorionak gure mutiko handiari, etxekoen partez. Patxo handi-handi bat.



Inhar Lizundia Placeres, gure mutil handiak hiru urte bete zituen urtarrilaren 28an. Zorionak aitaxo eta amatxoren partez.

Hamabostero, jasotako zorion-agur guztien artean tarta bat zotz egingo dogu. Beharrezkoa da bialdutako mezuagaz batera telefono zenbakia emotea.



EUSKADIN KALITATEAREN IKURRA K HIZKIA DA



www.euskolabel.net

Eusko Labelaren K-rekin
Gure lurreko elikagai aukeratuak, mimo handiz ekoiztuak, hasieratik bukaeraraino kontrolatuak eta benetakotasunaren berme guztiekin.



Zu zaintzeko zaindua

- | | | | | | | | | | | | |
|---|--|---|---|--|---|---|---|----------------------|--|--|--|
| Euskal Okela
Carne de Vacuno del País Vasco | Euskal Esne Biltotsa
Quesos Leche del País Vasco | Gernikako Piperra
Pimentos de Gernika | Hegaluzes eta Hegalaburra
Buzina del Norte y Añón Negro | Euskal Baserriko Arrautza
Huevo de Campesino Vasco | Euskal Baserriko Olibaskoa
Palo de Calena Vasco | Euskal Esnea
Leche del País Vasco | Ibarrako Piparrak
Guindillas de Iruña | Eztia
Miel | Euskal Tomatea
Tomate del País Vasco | Arabako Patata
Patata de Arava | Euskal Babarrunak
Alubias del País Vasco |
|---|--|---|---|--|---|---|---|----------------------|--|--|--|

Eusko Labela: ona den seinale



Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Euskal Okela inguruko harategi hauetan aurkituko duzu

- | | |
|--|--|
| Abadiño
• PINILLA HARATEGIA
TRAÑABARREN, 29-MATIENA | Durango
• GALLASTEGI HARATEGIA
ANTSO ESTEGIZ KALEA, 1 |
| Zaldibar
• GALLASTEGI HARATEGIA
ZALDUASOLO PLAZA, 8 | • IÑAKI HARATEGIA
SASIKOA KALEA, 10 |
| Otxandio
• GAZTAÑETA HARATEGIA
ARTEKALE, 25 | • OKA HARATEGIA
ANDRA MARI, 3 |

Baimenduak: Euskal Okela saltzeko Harategi Baimenduak

Especializatuak: Baimenduak izateaz gain, Euskal Okelarekin eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin kanpromiso handiagoo duten harategiak

Euskal Herrian ekoiztuak, ingurunea errespetatuz eta kontrol zorrotzak pasatuz, gozo-gozoak, eta kalitate handikoak. Honelakoak dira "Eusko Label" zigilua duten gure produktuak. Bilatu logotipoa eta desberdintasuna dastatu.



Orain, gainera, Kalitatezko Euskal produktuekin betetako saski bat irabaz dezakezu



Goi-mailako elikagaiak
Alimentos de calidad superior

Kalitatezko euskal produktuekin betetako saski baten zozketan parte hartzeko "Eusko Label" zigilua duen produkturen baten etiketa zure datuekin eta telefonoarekin batera bidali hurrengo helbide honetara:

Erref.: "Eusko Label Saskia"
Anboto Astekaria
Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta

Hilero azken astelehenean saski bat zozketatuko dugu hurrengo produktuekin: lile 1 Arabako Babarrunak, pote 1 "Ibarrako Piparrak", pote 1 Ezti, Idiazabal gozoa, botella 1 "Bizkaiko Txakolina", botella 1 "Arabar Emisako Ardoa", botella 1 Arabar Emisako Olio Birjina, Txakolinazko bombol-lutxa 1 eta 300ko txantel 1 Euskal Okelaz, Euskal Esne Biltotsaz edo Euskal Baserriko Olibaskoz trukatzeko.



Joxe Garaizabal
Irakaslea

Errebonbillo haizea

Hamaseigarren mendean alarde edo arma erakustaldi bi egiten ei ziren Durangaldeko herrietan. Maiatzean Gurutze Santuaren egunean eta irailean San Migel egunean. Herriaren ardura zen Domu Santu egunean biztanleko arkabuza, ezpata, bi libra bolbora eta bi dozena bala erosita zeukazela erakustea. Eta lehentasuna zeukan diru honek erosten erabiltzea beste edozein gastu baino lehen.

Herriak bere burua defenditzeko gertu izan behar eban eta gauza zen.

Gaur egun be horretan jarri beharko geunke ardura. Zaindu maite dugun hori!

Ze, demokraziadunak direla esanaz arma eta gezurren bitartez irabazitakoa, gezur demokratiko (konstituzio aldaezina) eta arma (ejertzio, ertzain, eta guardia zibil) bitartez zaintzen dabe.

Horretarako justizia andrearri begiak tapatu deustiez balantzaren orratza ez daian ikusi, ez eta noren mesedetan dabilen be. Hor dagoz agerri: Egin, Segi, Euskaldunon Egunkaria, Bateragune, eta beste.

Argi ibili! Zaindu maite dugun hori!

Inoiz baino behar gehiago egin behar dogu. Batasun eta maitasun handiagoa behar dogu. Ez beste herriak gureganatzeko, ez eta geure artean burruka egiteko; geure burua defenditzeko baino.

Zein demokratikoak diren berrehun mila pertsonen eskubideak zapalduz. Berrehun mila ahots isilduz.

Joan soseguz,
lasai joan,
haizea lagun dogu
aldaketan.

“Mediku batzuek ogia hurrengo egunean jateko esaten dute”

Alabak lagun, gustu guztietarako ogiak egiten ditu bikoteak. Eurei ere asko gustatzen zaie ogia

Goizeko hiruretan jaiki eta ogia egiten hasten dira Matzorri baserrian. Baserrikoa eta bestelako ogiak ere egiten dituzte, duela 18 urte denda zabaldu zutenetik.

Noiztik egiten da ogia zuen baserrian?

Luis Mari: Lehen amak egiten zuen, eta ez amak bakarrik, baserri guztietan egiten zen lehen ogia. Astean behin egiten zen, eta aste osorako egoten zen ogia. Gero, bide zabalak egiten hasi zirenean, okinak hasi ziren etxe etxe ogia banatzen, eta baserri askotan ogia egiteari utzi zioten. Gure amak jarraitu egin zuen. Gero, jendeak ospakizunen bat zeukanean ogia egiteko eskatzen zion. Etxera eramateko eskatzen hasi ziren, eta gero etartekoak ere hasi ziren eskatzen. Poliki-poliki, horrela hasi zen ama ogia banatzen.

Eta gero zuek hartuzenuten erreleboa...
Gaztetan guk ere laguntzen

genuen, eta egun baten, ama eta aita basoan zeudela, Elena bakarrik zegoen etxean, enkargu bat etorri zenean. Berak ogia bakarrik sekula ez zuen egin, eta ausartu zen egiten, eta oso ogi ona irten zitzaion. Geroztik, ama bizi zen artean laguntzen ibili zen, eta gero guk hartu genuen erreleboa.

Orain alabak ere horretan dabil-tza.

Bai, alaba nagusia lanean bi hilabete ibili, etxera... horrela ibili zen tarte baten. Okindegia jartzeko aukera zegoela esan genuen, eta lan gogorra zelako, hasieran ez zuen nahi jarraitu, eta azkenean okindegia jartzeko inbertsioa egitea pentsatu genuen. Orduan hasi ginen baserriko ogia bakarrik barik denetarik ogiak egiten.

Zelan gogoratzen duzue dendarako saltoa?

Aldaketa handia izan zen. Lotura handiagoa hartu genuen. Baserriko ogia bakarrik egiterakoan, egun bat baino gehiago irauten duenez, deskantsurako egunak be bageneuzkan, eta bestelako ogia egunero egin behar da.

Lokala erosteko arazoak izan genituen, kontratistak ez zuelako lokala saldu nahi, pisuak zituelako saltzeko. Azkenean pisua ere erosi genuen, eta orduan saldu zigun lokala. Baserrian ogia egiteko makina berriak jartzeko ere inbertsio handia egin genuen.

Zuen baserriko ogiak fama ona dauka...

Bezero askok esan digute ez dutela baserriko ogia erosten, garestiago irtetzen delako, arinago jaten da eta! Bestea erosten dute, gehiago irauten dielako.

Zein da ogi onaren sekretua?

Pausatzen uztea garrantzitsua da. Baserriko ogiaren orea 3-4 ordu egoten da pausatzen. Jendeak galdetzen digu ea zelan egiten dugun ogia, eurek etxean egiteko, baina ez dakite denbora asko behar duela. Ogia bizirik dagoen zerbait da. Bere prozesua dauka; bere momentua dauka ebakitzeko, labean sartzeko... ogiak berak esaten du noiz

eman hurrengo pausoa. Hori bai, pausatzen zenbat eta denbora gehiago utzi, gozoagoa.

Lehengaiak ere garrantzitsuak izango dira...

Irina oso garrantzitsua da. Hemen antza pentsurako den garia egiten dute, eta ogia egiteko hori ez da egokia. Irin fabrikakoek gari asko Argentinatik eta ekartzen dute, hangoa kalitate hobekoa delako. Guk aurkitzen dugun onena ekartzen dugu.

Badaude ogi batzuk labean 10 minutu sartuta egiten direnak.

Bai, produktu asko dituzte horiek. Guk argi dugu bezeroak holakorik eskatu arte ez dugula holakorik egingo. Medikuek esaten dute, gainera, osasunerako ogi egin berria baino sikua hobea dela. Legamiak molekula batzuk izaten ditu, gorputzarentzat ez oso onak. Ogia hozterakoan molekula hil egiten dira. Medikuek batek baino gehiagok esan digu ogia hurrengo egunean jateko, ondo hoztuta.

Familiar ongi zaleak zarete?

Larregi! Eta edozein ogi gustatzen zaigu, e? Kanpora joaten garenean ere probatzea gustatzen zaigu. Arto irinagaz egindakoa, haziak eta dituena... horiek ere oso gozoak dira. Bat hartu, jaten hasi, eta apurka-apurka konturatu orduko amaitu ere egin dugu inoiz!

Luis Mari
Mazorriaga eta
Elena Garai •

Elorrion bizi dira, Gazeta auzoan

Matzorri okindegia-
ren jabeak dira



ESKAINTZA AKADEMIKOA:

- 0-5 urte - HAUR HEZKUNTZA
- 6-11 urte - LEHEN HEZKUNTZA
- 12-16 urte - DBH
- BATXILERGOA - Ibaizabal Ikastolan
- HAUR HEZKUNTZAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA

ZERBITZUAK

- Jantokia
- 3 urtetik aurrera: zaintza zerbitzua
- Autobusa
- Eskolaz kanpoko jarduerak ikasturtean eta udan

PROIEKTU PROPIOAK

- Eleaniztasuna
- Teknologia Berriak
- Antzerkia
- Euskaraz bizi

